

# Arrasate

P R E S S

2000.eko  
otsailak 25  
485. zenb.



**Olé!**

**Al-Andalus, 10 urte**

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: LOREA ARANBURU  
KIROLAK: GIMNASIA ERRITMIKOA UARKAPEN • KULTURA GAIA: HARATUZTEAK

# Emakume! hartu hitza eta erabakia

## OTSAILAK 29

martitzena

- 19:00** Hitzaldia "Emakumeen parte hartzea alor publikoan"  
Nork Arantza Urkaregik  
Non Monterronen

## MARTXOAK 1

eguztena

- 16:00** Zine foruma  
Sexualitate Zerbitzuak antolatuta  
Non Santa Teresa 12an

## MARTXOAK 2

eguztena

- 21:30** Zine Kluba  
"Under the sun"  
Colin Nutley  
Non Amaia Antzokian

## MARTXOAK 5

domeka

- 19:30** Antzerkia  
"A viaxe de Lola"  
Alalá Producciones  
Non Amaia Antzokian

## MARTXOAK 8

eguztena

- 9:00-12:00** Azoka animazioa  
Azoka plazan  
**11:00** Arrasate Irratia:  
"Emakumeak alor publikoan"  
**16:00** Ipuin kontakizuna  
helduentzat:  
JM Carrere  
F.G.H. Zentroan  
Santa Teresa 12

- 16:30-18:30** Umeentzako tailerrak  
Herriko Plazan

- 17:30** Erakusketa zabaltzea  
Harresi aretoan

- 18:00** Ipuin kontakizuna  
helduentzat:  
Txatxikontalariak  
AEDko lokaletan

- 19:30** Manifestazioa  
Seber Altube

## MARTXOAK 9

eguztena

- 10:00** Ipuin kontaketa:  
JM Carrere  
Institutuan

- 14:30** Ipuin kontaketa: Hiruki  
Erguin Herri Eskolan

- 21:30** Zine kluba  
"High art" Lisa  
Cholodenco  
Amaia Antzokian

## MARTXOAK 10

eguztena

- 11:30** Ipuin kontaketa: Hiruki  
Musakola Herri Eskolan.

- 16:30** Gazte Txoko eta  
Ludoteketan:  
txokolatada

- Non Gazte Txokoetan: San  
Andres, Musakola,  
Erguinen.  
Ludoteketan: Seber  
Altube, Santamañan

## MARTXOAK 11

zapatua

- 10:00** Emakume baserritar eta  
artisauen azoka  
Seber Altuben

- 14:30** Bazkaria  
Musakolako Hostalean

## MARTXOAK 14

martitzena

- 19:00** Hitzaldia: "Euskal Herriko emakumeen erronkak"  
Maite Barreña  
Non Monterronen

## MARTXOAK 16

eguztena

- 21:30** Zine kluba  
"Lección de tango"  
Sally Potter  
Non Amaia Antzokian

## MARTXOAK 21

martitzena

- 19:00** Hitzaldia: "Emakumeen egoera Hego Ameriketan. Hiru adibide: Peru, Guatemalteka, Txiapas."  
Nork Mundukide  
Non Monterronen

## MARTXOAK 23

eguztena

- 21:30** Zine kluba  
"Lluvia en los zapatos"  
María Ripoll  
Non Amaia Antzokian

## MARTXOAK 30

eguztena

- 21:30** Zine kluba  
"La manzana"  
Samira Makhmalbaf  
Non Amaia Antzokian

### HERRIKO EMAKUMEEN ESKULAN ERAKUSKETA:

Harresi aretoan martxoaren 8tik 20ra.

**Parte hartzaileak:** Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroko emakumeak, Beni Urkiartzoren tailerra, M<sup>a</sup> Jose tailerra, EKIN emakumeak, Garagartza eta Gesalibarko emakumeak, Monterroneko pintura ikastaroko taldea eta Musakolako elkarteak.

Antolatzailea: Emakumeen Kontseilua



ARRASATEKO UDALA



Arrasateko Uda

# Atzera pausoa

O rri hau idazten dugun laukotean aldaketak datozela, eta etorri bitartean, Marijo zuzendaria aste honetan berriro neuk idaztea eskatu zidan. Idatzi ere idatzi nuen, duela gutxi Lizarra-Garaziko akordioaren aurkezpen batean moderatzaile izan ondoren, han entzundakoak eragin zidan gogoeta baikorra. Honela amaitzen zen: “Alderdi abertzaleek izango dute bakoitzak azken helburu propioa, nahi diren berezitasunekin, baina bide zati bat elkarrekin egin behar daude, eta hobe lukete bidaia elkarrekin prestatzea.

Telesforo falta da, baina Maltzaga lehengo lekuan dago”.

Artikulu idatzita, zuzenduta eta inprimategirako gertu zegoela, Buesa hil dute Gasteizen eta, besteak beste, Ibarretxe



Mikel Irizar

**Nik uste, euskal gizartearen gorpuzten hasia den egitasmoa zuzena dela**

Lehendakariak EHrekin zuen gobernu hitzarmena, lehen indargabe zegoena, apurtu egin du. Eta nire artikulua, bistan da, baliorik gabe geratu da. Oraingo behintzat.

Hausnarketa morala bakoitzaren kolporako utzita ere, indarkeriak atzera pausoa eragiten ditu gizartearen. Ideia landuak bazterrarazi eta ideia primitiboenak ekartzen ditu lehen lerroa, neke handiz eta denbora luze egindako lan fina baldarkeriaren pean deusezten du, eta metatzen ari ziren indarren sakabanatzea dakar.

Eta hala ere, aurrera egin behar da. Lehendabizi, munduak jiraka jarraitzen duelako, egun eta gau berriak etengabe ekarriz. Bigarren, amorrua kanporatu eta gero, aho beroei ez zaielako esateko-rik geratzen. Hirugarren,

eta hemen dago gakoa, lana behar da indarkeriak jarretan atzera pausoa eragin ondoren, ez dezan estrategia zuzenak okertzea ekarri.

Ze, nik uste, euskal gizartearen gorpuzten hasia den egitasmoa zuzena dela. Gatazkaren mamia Espainiako Konstituzioaren mugak onartu ala ez onartzean kokatzea, aurrerapausoa da. Alde batekoen nahiz bestekoek kopuruetan berdinketa tekniko dagoela aitortzea, zentzuzkoa. Euskal Herria, etorkizunean, espainola ala burujabea izan daitekeela onartzea, heldutasun seinale. Eta aukera bat hala bestea gauzatzeko mekanismo bat adostea, irtenbide bakarra.

Norabide horretan, Buesaren hilketa atzera pausoa da. Lizarra-Garaziko ekitaldi horretan, ordezkari sindikal bati entzun nion. “40 laguneko lantegi batean arazoekin dabilta, eta 40 langileak batera doaz manifestazioan, jabearen aurrera. Halako batean, norbaitek harri bat jaurti eta leiho bat apurtzen du. Ondoren, 5 lagun geldituko dira harrika, baina beste 35ak joan egin dira. ETArekin berdin.”

*“Gure helburuetako bat Arrasateko kultura bizitza aberastea zen, beste kultura batzuk jendeari erakustea eta Andaluziaren inguruko topikoak ezabatzea.”*

Al-Andalus

**1.040.000**  
pta batu ditu dagoeneko  
aurten Santa Agedako  
abesbatzak.

Iaz baino 100.000 pta gehiago, baina oraindik ez dute diru guztia jaso. Izan ere, Fagor Elektratresnak, Fagor Automation, Alecop eta Fagor Industrial enpresen diru ekarpena jasotzeko dauka oraindik abesbatzak.

Dirua Karitas elkarteari emango diote.

## ITURRI ONETIK

### Garraio publikoa guztiontzat

Fagor Garagartzan lanean ari direnentzako autobusean zapi lagun baino ez dira joaten.

Hala ere, garraio publikoaren aldeko apustua egingo du Arrasateko Udalak. Herri barruan ibiliko liratekeen bi autobus jarri nahi ditu martxan. Eta gainera, jakin dugunez, hirugarrena ere jarri dezakete, baserri auzoetarako joango litzatekeena, Gatzaga, Aretxabaletan eta Eskoriatzan aztertzen ari diren bezala. Hirugarren autobusarena asmo bat baino ez da. Oraindik ez da inongo ikerketarik egin. Beste bien kostua 30 milioiokoa da eta Udalaren gain geldituko litzateke guztia. Fagorrek dirudenez, urtero 5 milioi pta emango duela adierazi du, hiru urtetan zehar.



**ARCO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarría. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantza-zu Lagunilla, Arantza Arriabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzaileak:** Arantza Loidi. **Administratzailea:** Agurtzane Gaiñzarain, Maite Urriolabellita (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakileak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Kar-mele Perez, Iker Ezpeleta. **Banaketa arduraduna:** Ander Elortondo-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontrolatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

Azala: Al-Andalus.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

**E**gun hauetan nahiko kezkatuak gabilta, hain zuzen ere, Arrasateko zahar egoitzan gertatzen ari omen diren hainbat jokabide ezohikorekin. Eta horregatik kaleratu nahi dugu hau, jendeak jakin dezan zer ari den gertatzen.

Zeren eta orain dela egun gutxi bertan izan bainintzen anaiarekin batera, oso gaixo aurkitzen omen diren senitateko eta ezagun batzuk bisitatzen; eta beraiekin batera elkarrizketan ari ginela, zera komentatu ziguten: lehenengo solairuan lanean ari diren erizainen aldetik, ahalegin denak egiten ari direla, solairuan bertan, eta aldi berean eurekin batera lanean eta eguneroko jardunetan ari den "Edu" izeneko erizain gazte bat, langabezia gordinean lagatzeko orduan.

Adierazi ziguten gainera, erizainak euren lana ongi betetzen ari direla eta era berean, bai gaixoekiko nahiz egoitzan bertan bizi direnekiko jarrera bikaina eta ezinhobea zela. Baina, beste alde batetik, guzti honek ezin dezake inondik inora ere justifikarazi euren jarrera neurrigabea.

Azken batean, ez baitakit eta beraz, ezin guztiz ziurtatu, zein edo, zeintzuk izan daitezkeen benetan arrazoi funtsezkoenak, erabaki lotsa-

garri hau onartzeko orduan.

Zeren eta alderdi honetara helduta gero, galdera hau luzatu nahi nieke neurri hau hitzartu dutenei: ea zein erru mota bota dakioken edo zertan huts egin duen, horrela inongo arrazoi gabe kalera botatzeko eta lanik gabe uzteko.

Azken batean, bere lana ongi eta zintzo betetzen ari bada inorekin sartu gabe, eta bertan bizi diren pertsonak, berarekin gustura badaude, eta era berean, begirune osoz eta maitasun handiz begiratu eta tratatzen badute elkarren artean.

Bere asmo, nahi edo helburua azken batean, egoitzan bertan bizi direnen azkenengo bizi egunak, bizi kalitate maila hobea bat, huts egingo bat eta era berean, erosoago bat bihurtzeko eta bilakatzeko ez bada, eta era berean baita era emateko.

Edo gure zaharrek egin duten neke lanak eginda gero urteen poderioz, ez al dute eskubiderik, hori eta askoz ere gehiago eskaintzeko?

Bestalde, lehen ahaztu egin baitzaigu komentatzea, egoitzan bertan ere, gehiago bat kenduta, beste erdia, kexu zirela aspaldidanik ez baitzitzaien eskaintzen behar den bezalako atentziorik, eta beraz, alde horretatik ere, euren kezka nabarmena adierazi nahi izan zuten; aldi berean, zurrumuru hau, bolo-boloka eta batez ere, ahoz aho zabaltzen edo hedatzen zihoalako herri osoan zehar.

Beraz, alde batetik horren

eskakizun berezi bat luzatu nahi genieke egoitzako arduradunei, hain zuzen ere, ez dezaten aurrera eraman mutil gazte hori kalera botatzeko neurria; eta bestalde, egia bada atentzio falta nabari dela zahar egoitzako lan taldearen aldetik, saia daitezela burumakur arazo hau konpontzen, eta aldi berean, bizi kalitate hobea ematen eta eskaintzen egunetik egunera, merezi baitute gure hirugarren adineko pertsonak.

*Francisco Javier eta  
Jose Ignacio  
Barrutiabengoa.*

## EUSKAL IRAKASKUNTZA

**A**rgi dago egungo eredu sistemak gaitz eta trapa asko dituela, ikasgaien edukien %50 Madrildik ezarrita datorrela, liburu eta mapa gehienek Euskal Herriaren zatiketa indartzen dutela, lan egutegietan hainbat jai Madrildik inposaturik datozela e.a.

Material hori guztia batu eta martxoaren 4an, larunbata, 12:00etan Bergarako UNEDen entregatzeko deia luzatzen dizuegu.

*Euskal irakaskuntzaren  
aldeko ekimena*

## Mafiosoak eta mesedeak?

Ziur aski denok ikusi izan ditugu mafiari buruzko filmeak. Bertan garbi agertzen da mafioso baten aberastasun eta botere iturri handiena zor dizkioten mesedeak direla. Mafioso batekin zor bat baduzu, bere morroi izango zara zorra kitatu bitartean.

1990ean Golkoko krisian Egiptok EEBBEn alde eta Iraken kontra egin zuen. Horrek berebiziko garrantzia izan zuen Egiptok bere inguruko herrialde arabiarretan duen garrantzia dela eta. Ondorengo bi urteetan Egiptori mendebaldeko estatuek zorraren %70 barkatu zioten eta bankuek berriz, %90 baino gehiago.

Adibide honetan garbi ikusten da Kanpo Zorra zordun gobernauk "kontentutzeko" tresna baliagarria dela oso. Ez ote da hau Kanpo Zorraren etengabeko hazkundera azaltzen duen arrazoiatariko bat?

*Kanpo Zorra  
Ezabatze Bilkura*

### GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala 25

• Irizar, Erguin

Larunbata, 26

• Amezua, Santa Marina

Igandea, 27

• Zabala, Zarugalde

Astelehena, 28

• Ruiz, Maalako Errabala

Asteartea, 29

• Morales, San Andres

Asteazkena, 1

• Azkoaga, Ferrerías

Osteguna, 2

• Azkoga, Iturriotz

*Sili Sili*

Martxa eta estilo  
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**  
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

# Zertan erabiliko zenuke Udal aurrekontuen dirua?

4.103.456.683 pta. onartu da aurtengo aurrekontuetarako



**Diego Murillo**  
(65 urte)  
Erretiratua

Konpondu beharreko gauza ugari dago. Auzoek, behar asko dituzte... Herria konpontzeko erabiliko nuke.




**Daniela Romero**  
(42 urte)  
Etxekoandrea

Etxebizitza gehiago egiteko, gazteentzat eta etxebizitzarik ez dugunontzat. Eta orain baino merkeagoak.



**Calista Aguado**  
(57 urte)  
Etxekoandrea

Beharra duen jendeari laguntzeko erabiliko nuke nik dirua. Etxebizitzak egiten, adibidez...



**Joseba Berezibar**  
(33 urte)  
Langilea

Aparkalekuak egiteko. Errepideetako zuloak tapatzeko; batzuk tapatu dituzte, baina beste batzuk hor daude.



**Asier Castillo**  
(23 urte)  
Ikaslea

Autobusak jartzen, adibidez. Herri barrurako, baina baita kanporako ere, oso gutxi daude eta.



**German Estevez**  
(24 urte)  
Langilea

Gaztetxe berri bat egiteko, adibidez.



**Lorea Uriarte**  
(28 urte)  
Langilea

Aparkalekuak egiteko. Gazte ere emango nieke zati bat eta baita herriko taldeei ere... Etxebizitzak ere behar dira.



**Ana Belen Verdejo**  
(20 urte)  
Langilea

Automobilentzat aparkaleku gehiago egiten. Askoz gehiago behar dira.

*Sagardotegia Txotx egin!*

**ITURRIETA**  
Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

# 26

## ostirala

■ ZINEA

*Un Marido Ideal*, 19:00 eta 22:00, Alai zineman.

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

XI. Andaluziaren Eguna ospatzeko ekintzak gaur has- ten dira, *Ha Pasado un Duen- de Ana* Torralvaren argazki erakusketaren inaugurazioa- rekin. Al-Andalusen egoitzan, 20:00.

■ LIN TON TAUNEN KONTZERTUA

*Lin Ton Taun* taldeak Ber- garako Go-Jam aretoan joko du. Sarrera 800 pezeta. 22:00.

# 26

## larunbata

■ ZINEA

*Los Teleñecos en el Espacio*, 17:00etan, 400 pezeta, eta *Las Cenizas de Angela*, 19:30 eta 22:00.

■ LUDOTEKA IBILTARIA

Azken egunez Erguin auzoa bisitatuko du Txatxili- purdiren Ludoteka Ibiltariak. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako haurrei zuzen- dua dago ekintza hau. 11:00- 13:00, Erguin Herri Eskolan.

■ ANDALUZIAREN EGUNA

Gaur izango da XI. Anda- luziako Egunaren egitarauko egun handia. Eguerdian, oho- rezko ardoa eta Andaluziako Himnoa. Dantzaldia eta sevi- llana jaia, herri bazkaria 14:30etan. Etxeko taldeen eki- taldiak. 21:00etan bazkide afa- ria eta dantzaldia. Puzgarriak eta haurrentzako trena egun guztian zehar.

■ PENNYWISE JAMEN

*Pennywiseren* kontzertua izango da Bergarako Jam are- toan. *Beatsteaks* eta *Heidero- osjes* taldeek ere joko dute. Sarrerak 2.800 pezeta, 2.500 alde z aurretik erosita. 21:00.

# 27

## igandea

■ ZINEA

*Los Teleñecos en el Espacio*, 17:00etan, 400 pezeta, eta *Las Cenizas de Angela*, 19:30 eta 22:00.

■ EA-REN EKITALDIA DONOSTIAN

Donostian kanpainako eki- taldi nagusia izango du EAK. Horretarako autobusak anto- latu ditu Arrasateko Eusko Alkartasunak, Abaroatik eta Musakolako Hostaletik. 12:00etan Aginagako sagar- dotegi batean bazkaria izan- go da. Ondoren Donostiako mitinera abiatuko dira. Auto- busa eta bazkaria 3.500 peze- ta. Deitu Alkartetxera, 943 79 64 53.

■ PAILAZOEN SAIOA

XI. Andaluziaren Eguna- ren ospakizunen artean, *Los Diana* taldeko pailazo- en saioa izango da, Al-Andalusen egoi- tzan, 18:00.

■ GO-JAM ARETOA

*David Duran* eta *Maribel* gitarra eta biolin joleek eki- taldia eskainiko dute Berga- rako Go-Jamen, Jam aretoa- ren bigarren solairuan. 21:30.

# 28

## astelehena

■ ZINEA

*Las cenizas de Angela*, 19:00 eta 21:30etan, Alai zine- man.

■ OHOREZKO ARDOA AL-ANDALUSEN

Gaur amaituko dira Anda- luziaren Eguna ospatzeko egin diren ekintzak. Ohorezko ardoa eta Andaluziako Him- noarekin amaituko dituzte ospakizunak Al-Andalus kul- tur elkartekoen. Al-Andalusen, 19:00.

■ EZKER BATUAREN HITZALDIA

Hitzaldi irekia antolatu du Ezker Batuak. Arrasateko ordezkari- ez gain, Isabel Lopez Aulestia Espainiako Kongre- surako hautagaia, Ricardo Ortega, Senaturako hautagaia, eta Javier Madrazo, Euskadi- ko Ezker Batuaren koordina- tzailea izango dira gonbida- tuak. Monterronen, 19:00.

# 29

## asteartea

■ ZINEA

*Las cenizas de Angela*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman. Ikuslearen eguna, 400 pezeta.

■ EMAKUMEEI BURUZKO HITZALDIA

Martxoak 8ko egitaraua- ren barnean, "*Participación de las mujeres en el espacio público*" hitzaldia eskainiko du Arantza Urkaregik. Mon- tterronen, 19:00.

# 1

## asteazkena

■ MAHAINGURUA MONTERRONEN

Euskal Herria eta Globa- lizazioa izenburuarekin mahai ingurua antolatu du AEDk. Antxon Mendizabal Tonino eta Jon Sarasua izango dira parte hartzaileak. 19:00, Mon- tterronen.

■ ZINE FORUMA

Martxoaren 8ko egita- rauan, sexualitate zerbitzuak antolatutako zine foruma izan- go da. Santa Teresa 12an, 16:00.

■ BERGARAREN JATORRIA

San Joxepe jubilatu eta pentsionisten elkarte eta Ber- garako UNED Ikastetxea Ber- gararen historiari buruzko hitzaldi sorta bat eskaintzen

ari dira. Gaurkoa UNEDeko irakasle Alberto Santanak emango du, El origen de Bergara izenburuarekin. Miguel Altuna Institutuan, 19:30.

■ **ETXEKO TORRADA LEHIAKETA**

Etxean Egindako Torraren lehiaketa antolatu du Zahar-Berrik martxoaren 4rako. Etxetik eginda ekarri beharko dira 6 torrada. Nafarroako baserri turismoko etxe batean asteburua pasatzeko aukera izango du irabazleak. Udaletxeko arkupetan, 18:00.

■ **SAGARDOTEGIRA IRTEERA**

Urtero bezala, sagardotegirako irteera antolatu du Erdu-AEKK. Martxoaren 11n izango da, zapatuan. Txartelak Irati tabernan eta AEKren egoitzan izango dira salgai, 4.500 pezetan.

■ **ZINEA AMAIAN**

Martxoaren 8ko ekintzen barruan, Colin Nutleyren *Under the Sun* filma eskainiko da gaur, zine klub saioan. Sarrerak 450 pezetan. Amaia Antzokian, 21:30etan.

■ **BILERA INFORMATIBO INSTITUTUAN**

Institutuan sexualitate ikastaroa egingo duten DBHko 4. mailako eta Batxilergoko lehenengo ikasleen gurasoentzat informazio bilera antolatu da. Institutuko Aretoan, 18:30.

■ **MUSIKA ORDENADORE BIDEZ**

Ordenadore bidezko musika ikastaroa antolatu du Arrasate Musikalek. Partituren edizioa landuko da, bakoitzak nahi duen musika idatzi, entzun eta inprimatzeko teknikak. 14 urteko gorakoentzat. Izena ematea, martxoaren 15era arte.

■ **NATURA IRUDITAN**

Hilaren 27ra arte izango da zabalik Juan Varelaren Natura Iruditan erakusketa, Oñatiko Ingurugiro Astearen barruan. Olakua Dorretxean, 18:00-20:30. 28tik aurrera, Arrasateko Harresi Aretora etorriko da biologo eta marrazkilaria, martxoaren 5era arte.

■ **EMAKUMEEN TOPAKETA**

Martxoaren 25ean, larunbatez, aurten hirurogei urte betetzen dituzten emakumeen topaketa izango da Arrasaten. Eguerdian meza izango dute San Frantzisko eizan, eta lagunarteko bazkaria

ondoren, batzokian. Izena emateko epea martxoaren 17an amaitzen da. Hire liburudendan edo Begoña drogerian.

■ **KINTO BAZKARIAK**

Martxoaren 4an bi kinto bilera izango dira. Batetik, 1946.an jaiotakoena. Meza eta Mondragon Hotelean bazkaria izango dute. Santos Zeziaga da ardura-duna, 943 79 23 73 telefonoan. Bestetik, 1930.ekoen taldeak ere izango du bilkura, ekintza berberekin. Deitu Juan Jose Uribarreni, 943 79 80 08 telefonora.

■ **UMEENTZAKO MASAJEAK**

Haurrentzako masaje ikastaroa antolatu du Mugi Psikomotrizitate, prebentzio eta laguntza zentroak, urtebetera arteko umeen gurasoentzat. Aurkezpena martxoaren 4an izango da. Araba etorbidea 3n, 11:30. Telefonoa: 943 77 08 05.

# Haurrentzako masaje ikastaroa

Urte 1era bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua



- Lasaitzeko •
- Hobeto lo egiteko •
- Koliko eta hortzaldietako minak baretzeko •
- Negar gutxiago egiteko •
- Inmunitate-sistema sendotzeko •

**Antolatzailea:** MUGI, Psikomotrizitate Prebentzio eta Laguntza Zentroa

**Tokia:** Araba etorbidea 3, 2-3. atea. (Eskatu eraikina)

**Eguna:** Martxoaren 4an, bilera informatiboa

**Ordua:** 11:30etan

**Telefonoa:** 943 77 08 05



## ESTELLA ORTOPEDIA

Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna  
Osakidetzarekin eta Lagun Aroekin hitzartua

### Mastektomietan...

- Bainujantziak
- Protesiak
- Bularretakoak



**Anitacare**

Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63

USTEAK USTE

Aurrera begira

**L**izarra-Garaziko akordioa sinatu zuten alderdieta-ko ordezkariak erabaki horrek atzera bueltarik ez zuela baieztatu dute behin baino gehiagotan. Eta joan den asteartean gertatu zenak ere ez luke erabaki hori bertan behera lagatzea ekarri behar. Nahiz eta Ibarretxe lehendakariak EHrekin zuen akordioa apurto duen, elkarrizketaren biderei eutsi beharko genioke. Honelako egoera batean hasieran odol beroak eragiten dituen ika-mika guztiak baretu ondoren, Euskal Herriak aurrera begira segitu behar du. Jakin badakigu alderdi espainolistek euskal gatazka-aren kontura kanpainan egiten dutela Espainian, baina hori Espainian gertatzen da. Buesaren hilketa, ETaren ekintza, neurri batean joko horretan sartzen da eta norbaitek etekina ere aterako du gertatutakotik. Baina euskaldunok odol hotza behar dugu, une hauetan batez ere.

Marijo Deogracias



Elikadura eta kirola

\* Lorea Aranburu

**A**riketa fisikoa egitea gorputzaren oinarrizko premietako bat da. Maiztasunez ariketa fisikoa egiteak osasuna hobetzea eta bizitzako arlo guztietan etekina hobetzea dakar. Muskuluak handitu eta indartu egiten dira eta artikulazioek hobetu eta malgutasun handiagoa lortzen dute. Biriketan gehitu egiten da bizitza-ahalmena eta bihotzekoak izateko arriskua gutxitu egiten du.

Bestalde, zenbait gaixotasun hobetu egiten da ariketa fisikoari esker: diabetea, idorreria, estresa, hiperkolesterolemia, hipertentsio arteriala, eta loditasuna.

Kirolak etekinean eragiten duten faktoreen artean, besteak beste, elikadura dago, hau da, kalorik hartzea eta hartzen diren elikagaien kalitatea.

Garantzitsua da pisua zaintzea; horrek harremana izango du kirolariaren gorpuzkerarekin eta egiten duen kirolarekin, atletismo, muskulazio, txirindularitza edo abarrekin.

Karatean, adibidez, kategoriaren arabera pisu-muga jakin batzuk eskatzen dira eta, beraz, ezinbestekoa da pisu iraunkorra lortu eta argaldu eta gizendu gabe pisu horri eustea.

Kirolariaren bizitzan hiru garai bereizi behar dira eta horietako bakoitzari dieta jakin bat dagokio: entrenamenduko dieta, lehiaketakoa eta errekupeziakoa. Orokorrean, kirolariaren dietak orekatua izan behar du, baina garai horietako bakoitzak bere ezaugarriak izango ditu gero. Entrenamenduko dietaren garrantzia azpimarratu behar da, eta horren barruan

“  
Kirolak etekinean eragiten duten faktoreen artean, elikadura dago.  
”

bi aldagai.

Alde batetik, kirol mota edo entrenamendu mota izan beharko da kontuan. Ariketa aerobikoan (fondoko karrean, maratoian) ari bagara, koipe gehiago hartu beharko dugu, barazki nahiz animalia jatorrikoak.

Entrenamendu anaerobikoan ari bagara (abiadura-lasterketa, luzera jauzia...) gluzido gehiago hartu beharko dugu (arroza, pasta, patata, ogia, lekariak, zerealak...). Muskulazioa egiten badugu (kulturismoa, fitnessa...), proteinak gehitu beharko ditugu (haragia, arraina, arrautzak, esneki gaingabetuak...).

Kontuan izan beharreko bigarren aldagaia entrenamenduaren bolumena da. Egunean ordubeteko entrenamendua eginez gero, aski dira egunean 3.500 kaloria inguru. Baina entrenamenduaren intentsitatearen arabera, eguneko 4.500 kaloria edo gehiago ere behar izan daitezke.

Azken batean, jaki kopurua neurtzen eta elikadura aldetik ohitura osasungarriak hartzen ikasi beharko du kirolariak. Argi izan behar du markak hobetzeko ez dela nahikoa entrenamendu ona egitea; dieta orekatua eta pertsonalizatua ere ezinbesteko dira.

\* Mendia Mediku Institutuko Mediku Nutrizionista

**P**ando  
ERROTULOAK  
Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabilioia)  
Tel. / Faxes: 943 79 79 70

**IKER**  
DEKORAZIOA

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •  
Erradapiak • Leihoak • Ateak •  
PVCko leihoak •  
Aluminiozko leihoak •  
Eskailerak • Armairu enpotratuak...


**GREMIOEN KOORDINAZIOA**  
Erakusketak eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxes: 943 77 11 20



## BERGARA

### ① Lacor eta Ibili Alemanian

Alemaniarra hedatzeko pauso erabakigarria eman du Bergarako Marcos Larrañaga taldeak, Lacor eta Ibili sukaldetako ontzien lantegiak biltzen dituenak. Joan den ostiralean sinatu zuen Bergarako taldeak Alemaniako sukalde tresneriaren arloko marka ezagunenaren, Wagnerren, erosketa hitzarmena. Wagner izena erosi dute bergararrek, ez enpresa ez eta makineria ere. Bergaran egingo dituzte Wagner markarekin salduko diren ontziak; hasiera batean alemaniarren izenari eutsiko diote, nahiz eta epe ertainera Bergarako lapikoen izenekin ekoizten hasteko aukera izan. Operazio honekin, Europan duen presentzia areagotu egingo du Marcos Larrañaga lantegiak. Izan ere, Espainian liderra da bere sektorean Bergarako taldea, eta bere produkzioaren %35 esportatu egiten du, Europara besteak beste. Gainera, oraingo erosketari esker iazko 3.500 milioiko fakturazioa 500 milioitan gainditzea aurreikusten dute bergararrek.



## OÑATI

### ② Ulmak lantegi berria eraikiko du

Oñatiko Ulma kooperatiba hedapen prozesuan murgilduta dabil. Plangintza honen barsean, datozen hiru urteotan 25 bat lanpostu sortuko dituen

8.000 m<sup>2</sup>ko polimero-hormigoizko lantegi baten eraikuntzari ekingo diotaldeak. Otsailaren amaiera aldera hasiko dira lanak, eta sei hilabeteko epea izango dute bukatzeko. Lantegia Oñatiko Zubillaga auzoko Osinurdingo Industrialdean kokatuko da, eta

1.000 milioi pezeta ipini ditu Ulmak egitasmo horretarako. Arduradunen esanetan, eraikuntza sektorearen hazkunde izugarriari erantzutea da hedapen honen helburua. Izan ere, garai ona bizi du eraikuntza sektoreak, eta goraldi horrek Debagoieneko enpresarik garrantzitsuenetakoa bihurtu du Ulma taldea.

## ESKORIATZA

### ③ Aerobic zerbitzua kendu

Aerobic zerbitzua bertan beharra utzi du Eskoriatzako Udalak. Erabaki hau justifikatzeko bi arrazoi eman dira: bategatik, zerbitzua hobetu beharra ikusten du Udalak, eta horretarako, orain arte erabili izan den lokala baino baldintza hobekak dituen lokal bat egokitu nahi du. Kiroldegian mol-datuko du lokal berria Udalak. Bigarren arrazoi moduan, udalaren kirol zerbitzu guztiak zentralizatu beharra dagoela esan du Eskoriatzako Udalak, hau da, kirol zerbitzuetarako eraikin bakarra erabili behar dela. Horrela, bada, bi baldintza horiek betetzen dituen egoitza egin arte itxaron egin beharko dute Eskoriatzako aerobic zaleek.



## Lan eskaintza

### Kazetaria

#### Baldintzak

- Euskara ondo menperatzea.
- Kazetaritza ezagutzea.
- Gida baimena eta autoa.

#### Bete beharrak

- Kazetari lanak egitea Arrasate Komunikabideak Elkartearen.

Curriculumak aurkezteko epea martxoaren 8an bukatuko da. Curriculumak ARKOk Administrazio bulegoan jasoko dira.

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE • Tel.: 943 71 23 90



## LAN ESKAINTZA



### San Frantzisko Xabier IKASTOLAK

### DBHrako irakaslea behar du

1999-2000 ikasturterako.

#### Baldintzak:

- Matematikan edo fisikan lizentziatua edo goi mailako ingeniaria izatea eta AUTOCAD ezagutzea.
- Curriculumak aurkezteko epea martxoaren 6an bukatuko da.

#### Curriculumak

#### bidaltzeko helbideak:

- San Frantzisko Xabier IKASTOLA Otalora Lizentziatua, 8, 114 postakutxa • 20500 ARRASATE
- Fax bidez: 943 77 08 66
- e-mail bidez: sfxabier@ikastola.net
- Eskuz: Ferixalekuko Ikastolan: 9:00etatik 13:00ak arte.

## astea bi hitzetan

### ■ ELAren batzarra

Debagoieneko ELA sindikatuko ordezkariak Bergaran elkartu ziren joan den ostegunean Jose Elorrieta sindikatuko buruarekin. Martxoaren 25ean egingo den kale agerraldirako deia egin zuen Elorrietak. Debarroko metalako lantegi handien ordezkariak elkartu ziren, tartean Polmetasa, Rodisa, Alfa eta Bergarako Labe Garaietako ordezkariak. Elorrietarekin batera Jose Mari Saenz, Debarroko metal arloko arduraduna eta Leire Txakartegi, Deba bailarako arduradun interprofesionala izan ziren hizlari.

### ■ Hondakinak ikasgai

Ingurugiro Eskolak eta Debagoieneko Mankomunitateak elkarrekin egiten duten zaborren inguruko seigarren kanpaina, erakusketarekin amaitu zen igandean. Hondakinak

gutxitu eta birziklatzeko erakusketak Monterreren egon zen ikusgai eta hemendik aurrera eta martxoan zehar bailarako herri guztietan jarriko dute. Hondakinei buruzko erakusketarekin batera antzinako gauzak ere jarri zituzten ikusgai. Bizkaiko Rezikleta taldeak etxez etxe bildutako antzinako artikulak, hain zuzen ere.

### ■ Saihesbidean lanean

Aste honetan berriro ibili dira Arrasateko saihesbidean konponketa lanak egiten. Oraingoan, errepidearen alboko mendi-hegalari behar bezala eustea izan dute helburu konponketek. Pare bat egunez aritu dira lanean. Bitarte horretan, errepidearen norabide bat moztuta izan da aldika, semaforo bidez.

Gipuzkoako Foru Aldundia GI 627 errepide-

an egiten ari den lanen barruan daude oraingo hauek. Lan guztiak martxoan bukatuta egotea dago aurreikusita.

### ■ Presoen eskubideen alde

Zigorren hiru laurdenak bete dituzten presoak kaleratzeko autoen martxa egin zen larunbatean Arrasateko Langraitzera.

Arrasateko Euskal Presoak Euskal Herrira taldeko Gazte Ekimenak antolatu zuen martxa eta 15 auto abiatu ziren.

Euskal presoen kontuekin segituz, Arrasateko Udaleko Gobernu Batzordeak aho batez euskal presoen eskubideen aldeko kale agerraldiari atxikimendua eman zion. Agerraldia datorren martxoaren 5ean izango da, Aretxabaletan arratsaldeko 18:00etan.

### ■ Dispersioaren aurka

Kale agerraldiak nagusi izan ziren ostiralean herrian. Pasa den asteburuan errepidean hildako Ruben Garateren heriotza salatzea izan zen eguerdian eta iluntzean egindako agerraldien helburua.

Dispersioa amaitzea zen egindako eskaera nagusia. "Dispersioak erail egiten du" leloarekin kalera atera ziren makina bat herritar eguerdian eta iluntzean. Gaixotasunak jota hil zen Iñaxio Ayerbe deportatua ere izan zuten gogoran.



“Badakit aldeko eta kontrako jarraitzaileak ditudala, baina tira... Jarraitzaileak erreta daude, baina gu ere bai. Batzuetan haien kexa entzun beharra izaten da, baina puntu bateraino. Pertsona baten aurka sartu dira eta hori errespetu falta iruditzen zait. Ez zait ongi iruditzen, ez dut bat egiten eta nahiago dut bitxikeria balitz bezala, ahaztea. Orain, denon artean, taldea animatu beharra dago, aurrera egitea posible delako... Reala zulotik ateratzea da guztiok nahi duguna eta ea lehenbailehen gertatzen den hori”.

**AITOR LOPEZ REKARTE**  
"BONBA"

Euskaldunon Egunkaria  
(2000.2.17)

**ML**

**ILE APAINDEGIA**

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65



**Elizondo**  
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

# Astore eta Asegarce berriz ere elkarren eskutik

Astore marka egiten duen Import-Arrasate enpresak eta Asegarcek datozen lau urteetarako hitzarmena sinatu zuten joan den ostiralean. Horren arabera, Arrasateko etxeak jantziko ditu pilota enpresa horretako pilotariak. Iñaki Burutxagak, Asegarceko zuzendari orokorrak, eta Esteban Uribealgok, Astoreko kudeatzaileak, sinatu zuten hitzarmena eta hemendik aurrera 35 pilotarientzako jantziak egingo ditu Astore.

1991n ere elkarlanean aritu ziren bi enpresak eta orain Asegarcek Arrasateko jantzi etxera itzultzea erabaki du.

Esteban Uribealgok dioenez "erabaki honekin pilota arloan nagusi izango da Astore, izan ere, Asegarce gain, Aspe, Ipar Euskal Herriko trinketeko pilotariak, Eusko



Esteban Uribealga eta Iñaki Burutxaga.

Basque enpresakoak (zestapunta eta erremontekoak) eta Valentziako pilotariak jantzen ditugu. Denak batuz gero, berrehun bat pilotari jantziko ditugu, teknikoez gain".

## DISEINU BEREZIAK

Import Arrasatek dituen 60 lan-

gileetatik bederlatzi diseinatzaileak dira. Eta euren bezeroentzat arropa erosoak egiteaz gain, oihal berriak bilatzen eta diseinu berriak asmatzen saiatzen dira. Asegarceren kasuan, oihal arinak erabili dituzte "orain arte baino hari arinagoa eramango dute elas-

tikoek eta pilotarientzat funtzionalak izan daitezten saiatu gara, hau da, mugikortasunik kentzen ez duten elastikoak egin ditugu. Beste berezitasunetako bat izerdia tratatzeko modua da. Kanpo aldean zabaldu egiten da eta lehena go sikatzea dakar; horrela gorputza beti fresko egoten da".

## ARGAZKI OFIZIALA

Ostiralean sinadura izan bazen ere, argazki ofiziala Uarkape Udal Pilotalekuan izango da. Horretarako datorren hilabetea aukeratu dute arduradunek.

Denboraldi berriko talde ofiziala, berriz, martxoaren 19an aurkertuko da. Orduan hasiko da buruz buruko pilota txapelketa eta egun horixe aukeratu dute Asegarcekoek euren jantziak erakusteko.



%60

%60

%60

%60

%60

%60

%60

%60

%60

ASTOR

Zarugalde, 14 • ☎ 943 79 49 72 • ARRASATE

# Arrasatek badu aurrekontua



PPko zinegotziek zigorra jasoko dute osoko bilkuretara ez etortzearen.

2000. urterako udal aurrekontua onartu zen osoko bilkura berezian, pasa den astean.

Alderdi popularreko zinegotziak faltan zirela, 4.103'5 milioi pezeta onartu ziren. Hauetatik, 3.899'9 milioi udal aurrekonturako dira, beste 222'6 Iturbide Egoitzarentzat eta 159'9 Aukearentzat. Beste 5.683'7 milioi pezeta 2000-2003 urteen bitartean inbertitzeko.

Baina aurrenik udalbatzarreko alderdi politikoei aurrekontuei aurkeztu dizkieten zuzenketak eztabaidatu eta bozkatu ziren. Zazpi izan ziren guztira.

EAJ alderdiak bi zuzenketak aurkeztu zituen. Gaztetxeari buruzkoa bata eta Musika etxeari buruzkoa bestea. PSO-Ek, berriz, bost aurkeztu zituen. Arrasate Musikalaren kokapenari, udal irratia ARKOra pasatzeari eta Udalbiltzaren eta Almen eta San Frantzisko Xabier ikastetxeen dirulaguntzei, hain zuzen ere.

## IRRATIA ARKORA

Paco García sozialista udal irratia ARKOra etortzearen aurka azaldu zen. Bere esanetan, irratia ARKOra ekarriz gero, "ez litzateke kontrolik izango irratiarengan, erakunde pribatu baten esku geratu-

ko litzatekeelako". Era berean, "irratia ARKOra ekartzeak mondragoetarren zati bat diskriminatzea ekarriko luke".

Horren aurrean, ARKOko arduradunek adierazi dute Arrasate Irratia udalarena dela, ARKOren egoitza bezala. "Udalak bere irratia berea duen egoitzara eramatea erabaki du eta ARKOri elkarlana proposatu dio, honen dinamikak irratia zuzpertzten lagun dezan. Hori da guztia".

Aurkeztutako zuzenketak ezeztatu ondoren, aurrekontuak onartu egin zituzten aretoan zeuden politikari guztiek.

## PP ZIGORTUTA

Aurrekontuaz gain, baina, beste puntu bat ere izan zen mintzagai pasa den ostegunean. Alderdi popularreko zinegotziak osoko bilkura askotara agertu ez izana gogor kritikatu zuen alderdi sozialistak, "herriko udalarentzat eta orohar herritarrentzat iraina" dela adieraziz. Honen aurrean zigorraren bat ezartzea proposatu zuen. Ezker Batuak, berriz, egoera hori salatuko lukeen adierazpen instituzionala egitea proposatu zuen.

Alkatearen erantzunaren arabera, dagoeneko hasi dira egoera hau ekonomikoki zigortzen.

# Hauteskunde kanpaina



## ZANPANTZAR ETA GUZTI AMAIAN

Euskal Herritarrok taldeak datorren hilaren 12rako abstentzioa eskatu zuen Mondragoen. Joan den ostegunean 19:00etan Eroski parean ongi etorria eman zioten zanpantzar eta guzti etorri zen "Abstentzioaren martxa" auto karabanari. Ordu erdi beranduago, Amaia Antzokian elkartu ziren guztiak. Xabier Zubizarretak mitina eman zuen herritarren abstentzioa eskatuz.

Esan, bestalde, EHk larunbaterako kale agerraldirako deialdia egin duela. Autobusa Garibaitik aterako da arratsaldeko 16:00etan. Kale agerraldia, berriz, arratsaldeko 17:30etan aterako da Anoetatik.

## EUSKO ALKARTASUNA

Datorren igandean Donostiako Benta Berri kiroldegira joateko deialdia egin du EAK. Eguerdiko 12:00etan Abaroatik eta Musakolako Hostaletik irtengo dira autobusak. Mitina arratsaldeko 17:00etan izango da.

## EUZKO ALDERDI JELTZALEA

Datorren astelehenean, Amaia Antzokian, EAJ alderdiaren mitina izango da arratsaldeko 20:00etan. Hizlariak Xabier Arzalluz, Joseba Egibar eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarrri izango dira.

## EZKER BATUA

Hitzaldi irekia izango du alderdi honek datorren astelehenean Monterronen. 19:00. Arrasateko ordezkariak gain, Isabel Lopez Aulestia Kongresurako hautagaia, Ricardo Ortega Senaturako hautagaia eta Javier Madrazo izango dira gonbidatuak.

# Kanpo zorra galdegai

Hirugarren Munduko hainbat lurraldek sufritzen duen kanpo zorrari buruz erreferenduma egingo da martxoaren 12an Arrasaten eta Aretxabaletan. Ekimen horri buruzkoak dira azkenaldi honetan herrian zehar 84 zenbakiarekin agertu diren txartelak, 84 baitira kanpo zor altuena duten munduko herrialdeak.

Kanpo zor hori kitatzeko presioa egin nahi da martxoaren 12ko erreferendumarekin, horixe baita garapenerako oztopo nagusia.

Beste helburu batzuk ere badituzte talde honetako kide-



Martxoaren 12an erreferenduma egingo dute kanpo zorrari buruz.

ek. Batetik, jendea sentsibilizatu nahi dute. Gainera, demokrazia zuzena eta herri par-

taidetzarako bide berriak zabaldu nahi dituzte.

Egitasmo hau ez da, ordea,

Arrasate eta Aretxabaletara mugatzen. Euskal herriko beste herri eta hiri batzuetan ere egingo da erreferenduma, besteak beste Bilbon eta Gasteizen.

Astelehenean egin zen egitasmo honen aurkezpena jendaurrean kalejira eta prentsaurrekoaren bitartez, eta han izan ziren antolatzaileak: Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Harreman, Komite Internazionalistak, Manos Unidas, Caritas, Serso San Viator eta Aretxabaletako Hiruatx taldeak dira gure bailaran erreferendumaren antolatzaileak.

## EAJren presidentea



Arrasateko Euzko Alderdi Jeltzalea Hiri Batzorde Berria eratzeko lanetan dabil. Pasa den astean, presidente berria izendatu zuen. Karlos Garate da bere izena eta Agustin Ugarteren ordez hasiko da lanean.

Aste honetan, berriz, idazkari eta diruzain berriak izendatuko dira.

## Ekologista talde berria



Añanako ekologistak izan ziren solasaldian Monrerronen.

Makina bat bilera egin ondoren, asteazkenean talde ekologista berri bat aurkeztu zen jendaurrean. Izenik ez dute, oraingoz, baina bai helburu finakoak: bailaran egiten ari diren eta egingo diren proiektu erraldioen aurrean ingurugiroa babestea. Horretarako hasi dira

lanean. Besteak beste, hitzaldi sorta bat antolatu dute. Lehengo, haize zentrali buruzkoa, asteazkenean bertan izan zen. Elgea eta Añanako zentralak ere hizpide izan ziren. Bestalde, martxoaren 15ean eta 28an beste bi hitzaldi izango dira.


## Jaiotzak

- Jon Ayesa Ibaibarriaga. Urtarrilaren 30ean.
- Xabier Sánchez Lasa. Otsailaren 3an.
- Judith Zubia Aranburu. Otsailaren 6an.


## Hildakoak

- Demetria Arana Isasmendi. Otsailaren 3an. 75 urte.
- Trinidad Ruiz de Alegria Agiregabiria. Otsailaren 6an. 87 urte.
- Mari Carmen Uriarte Esteban. Otsailaren 6an. 73 urte.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 943 79 87 62



## IBABE GARAJEA

### MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Berezitasunak

Kazuelatxoak  
Otarreteko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

# Garraio publikoa eztabaidagai osoko bilkuran

Otsailari dagokion osoko bilkura atzo egin zen. 15 gai zeuden zerrendan, tartean, auzo alkateen izendapenen berri eman zen: Erdialdean, Jose Ignacio Sagasta (EH), Musakolan, Jesus Mari Apraiz (EH), San Andresen, Isabel Bueno (EAJ-EA), Santamainan, Javi Linazisoro (EH) eta Uribarrin, Felix Iturbe (EH).

Udalak Kutxan duen ordezkariaren izendapena ere berretsi zen. Ino Galparsorok segituko du horretan.

Ostegunean landu den hirugarren gaia, Arrasaterako garraio publikoaren kudeaketaren adjudikazioaren araudia izan da. Araudi horrek baldintza batzuk ezartzen dizkio zerbitzu publikoa eskainiko duenari: Mondragoen gora eta behera ibiliko diren bi autobusek 45 pertsona-



Eroskitik Uribe auzoraino iritsiko dira autobusak.

rentzako tokia izan beharko dute, 20 eserita eta 25 tente. Pertsona elbarrizentzat aulkiberezi bat eta igo eta jaisteko arrapala ere izan beharko dute. Eroskitik Uribe auzora arteko 18-19 geltokietan geratu beharko dira, minutu gutxiren aldearekin. Autobus bakoitzak asko

jota ordubete emango du buelta. Autobus honen txartelaren prezioaren kontrola udalaren esku geratuko da. 100 pezeta kostako da bidaia, 75 bonobusa izanez gero.

## ANTOÑA

Bestalde, Antoñako saihezbidea

ere hizpide izan da aste honetako osoko bilkuran. Saihesbidea egiteko desjabetu behar diren ondasunak aztertu eta horien zerrenda behin betiko onartzeko proposamena luzatu zaie politikariei. Zerrenda hau pasa den abenduan onartu zen behin-behinekoz eta orduetik hona jendaurrean egon da, alegazioak jasotzeko. Ez da alegaziorik jaso, beraz, zerrenda behin betiko onartzea izan da helburua.

Antoñako saihezbidea, 1998.an hasi zen eraikitzen, baina 1999ko urrian proiektua aldatu egin zen. Kendu beharreko jabetzen zerrenda berriro egin behar izan da eta jabeekin hitzarmen berriak lortu behar izan dira. Horregatik egon dira orain arte lanok geldik baina badirudi laster hasiko direla berriro.

# Epailea Arrasateko begiraleen alde

Epaileak arrazoa eman die Familia eta Gizarte Heziketarako zentruko begiraleei Kutxarekin izandako liskarrean, halaxe plazaratu zen pasa den ostiralean.

Epaileak adierazitakoaren arabera, Kutxaren jarrera, bidegabeko kaleratzea da. Orain bi urteko urrian hasi ziren arazoak Kutxa Fundazioaren Familia eta Gizarte Heziketarako zentruan. Bai Arrasaten eta baita Gipuzkoan dauden beste bost zentruetan.

Kontua da Gizarte Segurantzak inspektzio bat egin zuela orduan eta ondorioz, konturatu zen Familia eta Gizarte Heziketarako zentruko langileek ez ziotela Gizarte Segurantzari ordaintzen. Alta emon barik zeuden, hain zuzen ere.



Ostegunean mozio berezi bat aurkeztu zuten udalabatzarrean.

Kutxa Fundazioaren esanetan, begiraleei dagokie Segurantza ordaintzea, langile autonomoak direlako. Begiraleek soldatapeko langileak direla eta Kutxa Fundazioak ordaindu behar duela diote. Kontuak kontu Gizarte Asegurantzari diru dezente zor zaio.

## ESKOLAK BERTAN BEHERA

Liskar hauen ondorioz, Kutxa urrian urteroko eskolak ez hastea erabaki zuen eta hori dela eta, begiraleak kalean geratu dira. Honen aurrean, salaketa jarri zuten langileek. Mondragoen, 7 dira salaketa

jarri duten begiraleak. Guztira, baina, 40tik gora dira.

Donostiako Bigarren Auzitegiak gai honi buruzko erabakia hartu du. Begiraleen aldekoa da epaia. Epailearen arabera, eskolak urrian ez hastea bidegabeko kaleratzea ekarri du Familia eta Gizarte Heziketako begiraleentzat.

Jakinarazpena jaso eta Kutxak bost egun ditu sententzia honi helegitea edo errekurtsioa jartzeko, kaltetutako langileei dagokien diru ordaina ordaintzeko edo langileak berriro ere lanean hartzeko. Kutxa Fundazioak argituta-koaren arabera, oraindik ez dute epailearen jakinarazpen ofizialik jaso. Jakinarazpena eskuetan dutela erabakiko dute arazo honen aurrean zer egin.

Gai hau guztia ere aztertu da osoko bilkuran.

# MITINA

## Madrilerako hauteskundeak 2000

**Eguna:** OTSAILAK 27, igandea  
**Lekua:** Anoetako Kiroldgia, Donostia  
**Ordua:** 12:00

**Hizlariak:** XABIER ARZALLUS  
 JUAN JOSE IBARRETXE  
 JOSEBA EGIBAR  
 JUAN JOSE TXABARRI

Zeuk  
erabaki!



# MITINA

## Madrilerako hauteskundeak 2000

**Eguna:** OTSAILAK 28, astelehena  
**Lekua:** Amaia Antzokia, Arrasate  
**Ordua:** 20:00

**Hizlariak:** XABIER ARZALLUS  
 JOSEBA EGIBAR  
 JUAN JOSE TXABARRI

Zeuk  
erabaki!





## AKORDATZEN...?

Otsailera arte, memoriari buruzko ikastaroa izan dute Uribarriko erretiratuen etxeok. Gurutzegramak, asmakizunak eta antzeko jolasak erabili dituzte memoria lantzeko. Eta hortxe ibili dira, ea nork gehiago gogoratu.

## URTE ASKOTARAKO!

Isidro Gonzálezek, Gurea zinemako akomodadore izandakoak, 86 urte bete zituen otsailaren 17an, eta omenalditxoak egin zioten Monte tabernan adiskideek eta familiak.



## BERGARA, AUTOETAN NAGUSI

Opela izan da gipuzkoarrok iaz gehien erosi dugun auto marka. Bergarako Opel etxeak saldu du Gipuzkoan auto gehien. Hori dela eta, Espainiako ordezkaria, Juan Manuel Lumbreras, zorionak ematera etorri zen. Argazkian, Anton Blanco, Paulo Agiriano eta Karlos Etxanizekin batera.







## TALENTU BERRIAK AURKITZEN

Ondo aprobetxatu dute Aretxabaletako Kurtzebarri eskolakoek egin berri duten Antzerki Astea. Ikasleak izan dira

antzezle, eta hainbat lan taularatu dituzte. Lan asko hartuta, baina gustura ibili dira gure aktore gaztetxoak.

## IMPORT ARRASATE, SARITUA



Apex 2000 nazioarteko saria eman diote Impor Arrasateri, zuntz polarrez egindako umeentzat buzo baten diseinuarengatik. Mundu osoko enpresen

artean aukeratu du Polartec etxeak Impor Arrasateren lana. Argazkian, Esteban Uribealgo, Impor Arrasateko kudeatzailea.



# GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



# Flamenkoa eta peineta b

Denbora konturatu barik pasada, eta aurten azpimarratzeko hainbat urteurren dugu Arrasaten. Horien artean, herriko kultura bizitzan oso garrantzitsua izan den era-

kunde batena, Al-Andalus elkartearena. Atzo sortu zela dirudi, baina badira dagoneko 10 urte elkartearen zela. Gipuzkoako lehen elkarte andaluziarra izan zen.

**A**l-Andalusek 500 bat bazkide ditu. Euren ekintzak sostengatzeko hainbat talde dago elkartearen: abesbatza, rumba taldea, txirigotak, antzerki taldea... Gainera, eguneroko jarduerak zuzentzeko ordezkariak dituzte: badago gazteria sail bat, eta baita emakume saila ere, pisu handikoa. Ospe handia du Arrasatetik kanpo: Euskal

Herriko eta kanpoko kideak ditu, eta beste elkarte batzuen zatzat ere du Al-Andalus. Hitz gutxitan, kultura elkarte handia da.

Baina gaur egungo egoerara iristeko, nonbaitetik hasi behar izan zuen, eta hasierak apalak izan ziren, hasiera guztiak bezala. Lagunarteko ideia gisa jaio zen. Hamasei adiskide ziren, Arrasaten bizi zirenak baina Andaluziatik eto-

rriak edo andaluziar etorkinen seme-alabak. Hauen inguruan, beste 70 bat interesatu zeuden. Arrasateko eta Debagoieneko andaluziar guztien topaleku bihurtuko zen elkartearen sortzea zen egitasmoa. Al-Andaluseko arduradunek adierazi diguten moduan, "Arrasaten eta Debagoienean etorkin andaluziar asko zeudela ikusi genuen, baina ez zegoela komunikazio eta elkarlanik". Beraz, interesa izan zezakeen jendearengana jo zuten, pertsonalki edo gutunez, eta gonbidapena luzatu zieten. Eta jendeak erantzun egin zuen.

## ILUSIOZ BETETA

Indarra hartuz joan zen asmoa... eta 1990.eko urtarriaren 28an sinatu ziren Al-Andalus Kultura Elkartearen estatutuak. Egun hartan aukeratu zen Zuzendaritza Batzordea, 16 kidek osatua. Gorpuzkera juridikoa eta gogo bizia bazituen Al-Andalusek, baina baliabideak, ordea, urri. Egoitzarik ere ez zuten, Abaroan edo Santa Agedako egoitzan egin zituzten lehenengo bilerak.

1990.eko garai haiek ilusioz eta egitasmoz betetako gisa gogoratzen dituzte Al-Andaluseko zuzendari batzordeko kideek. Izan ere, elkarte honen éraketaekin helburu handien atzetik zebiltzan: "Alde batetik, jatorri andaluziarrak ditugunok gure kulturari eusteko sortu genuen, eta horregatik adineko jendea izan zen hunkituena, aspalditik ez baitzuten euren jatorriaren bizipenik", adierazten dute Al-Andalusen aita-amek. "Baina beste helburu bat ere bageneukan: Arrasateko kul-

tura bizitza aberastea, beste kultura batzuk jendeari erakustea eta Andaluziaren inguruko topikoak ezabatzea. Izan ere, peineta eta panderetaren lurralde gisa saldu izan da Andaluzia, eta hori baino askoz gehiago da. Gure kultura erakutsi nahi genuen, baina seriotasunez. Integrazioaren alde lan polita egin dugula uste dugu", diote zuzendaritzakoek.

Seriotasuna oso garrantzitsua da Al-Andalusentzat. "Behin, janzki tipikoekin kalejira egitea eskatu ziguten. Baina gu ez gaude horretarako. Abestu edo dantzan egin behar bada, ederki; baina ez gara ferriako erakarpena", esan digute arduradunek.

## LEHENENGO PROBA

Al-Andalusen ekintzak ohiko gauza moduan ikusten dira orain Arrasaten. Baina duela hamar urte, zertxobait kokilduta zeukan Al-Andalus topiko eta irudi faltuen eraginak. "Guk egin nahi genuena guztiz berria zen Arrasaten, eta



1998.ean, zazpi urtean behin bezala, artzain jantzi zuten Rocioko ama.



Iaz Arrasaten ospatu ziren Andaluziar Etor...

# aino askoz gehiago

ez genekien jendeak zer harre-  
ra egingo zigun. Gauza bat  
bilerak eta hitzaldiak egitea  
zen, baina guztiz bestelakoa  
gure folklore adierazpenak  
kalera ateratzea”, aitortzen  
dute Rafael Raya eta Kar-  
mentxu Amor arduradunek.  
Beraz, 1990.eko uztailaren  
lehen igandean Rocioko Ama-  
ren eguna behar bezala ospa-  
tzea erabaki zutenean, beldu-  
rrak eta jakinminak eraginda  
urduri zeuden Al-Andaluse-  
koak. “Edozer gauza gerta  
zitekeen: guri iseka egitea,  
txistu jotzea... Baina primerako  
harrera izan genuen. Bal-  
koietatik txalo ere egin zigun  
jendeak Amabirjina pasiatu  
genuenean”, gogoratzen dute.

Arrakasta horrek hegoak  
eman zizkion Al-Andalusi.  
Zentzu guztietan hazi da: bai  
bazkide kopuruan, bai ospe-  
an, bai antolatzen dituzten  
ekintzetan, gero eta ugariago  
eta anitzagoak baitira eskain-  
tzen dituzten proposamenak...  
Barne antolakuntza ere de-  
zente zabaldu da: gazte saila dago,  
eta emakume saila sortu dute,



Euskal Herriko jende asko izan zen Arrasateko Rociotan, 1998an.

“Al-Andalusen protagonismo  
berezia eman nahi diogulako  
emakumeari”, dio Rafael  
Gomez zuzendariak. Al-Anda-  
lusek bere pareko egoitza  
behar zuen hain handi egin  
ondoren. 1996.ean 1.000 m<sup>2</sup>ko  
lokala eraiki zen Zigorrolan.

## GERO ETA OPAROAGO

Egitaraua ere neurri berean  
joan da hazten. Hiru ardatz  
ditu: Rocioko eguna, uztaile-  
ko lehen igandean; Kultura  
Astea, maiatzean; eta Anda-  
luziako Eguna, datorren aste-  
lehenean. Horiei denetarik  
ekintzak gehitzen joan zaiz-  
kie: flamenko jaiak, Aste San-  
tuko ospakizunak edo beste  
Etxe batzuekiko harremanak,  
baina baita eskulanak, play-  
back saioak edo hitzaldiak, adi-  
bidez.

Buru-belarri ibiltzen dira  
antolakuntzan, eta astero iza-  
ten da aukeraren bat: urtean  
abuztua eta beste hiru asteburu

besterik ez dituzte aisialdira-  
ko. Baina ez dira kexatzen:  
“Oso pozgarria da jendearen  
erantzun ona ikustea. Merezi  
du ematen duen lan guztia har-  
tzeak”, diote Karmentxuk eta  
Rafaelek. Eta hori guztia bali-  
bideak soberan izan gabe:  
“Kultura elkarte moduan  
subentzioak jasotzen ditugu,  
baina ez dira nahikoa, eta  
kopururik handiena guk geuk  
ateratzen dugu. Baina gure  
ekintza guztiak irabazi asmo-  
rik gabekoak dira”, diote  
zuzendariak.

Ahalegin horrek oso emai-  
tza positiboak eman dizkio  
Arrasateko kultura bizitzari,  
arlo honetako eskaintzak asko  
aberastu baitira. Eta herriak  
eskertu egiten die ekarpena.  
Izan ere, kultura ekintza asko-  
tan parte hartzeko deitzen die-  
te Udalak, hezkuntza zentruak  
edo kultura elkarteak. Hiesar-  
en aurka edo Jabilo gazte arra-  
satearrari laguntzeko ekital-

diak egin direnean, hor izan dira  
Al-Andalusekoak. Eta Anda-  
luzia Debagoienean ezagutu  
erazteko esfortzuak ere egin  
dituzte: Andaluziara edo bes-  
te Etxeetarako bidaiak antola-  
tzen dituzte, eta baita kultura  
elkartrukeak ere. Aurten, esa-  
terako, Bergarako Aritzeta  
abesbatza joango da Cordoba  
eta Sevillara, euren eskutik.

Elkartearen hasierako hel-  
buru gehienak bete arren,  
askoz gehiago dituzte Al-  
Andalusekoak. Badute beste  
erronka bat: “Euskal Herriko  
Federazioko hamaika etxeek  
mini-Rocio egun bana ospa-  
tu ordez, bakarra baina han-  
dia ospatzekotan gabiltza. Eta  
azpiegituragatik, lekuagatik  
eta eskarmentuagatik, jai-  
a behin betiko Arrasatera eka-  
rri nahi dugu”, dio Rafael  
Gomez lehendakariak. Eta...  
baietz hori ere lortu! ■

Leire Kortabarria



aketak, izugarritzko arrakastarekin.

## JOSE LUIS ARMENDIA (ARRASATE YOGA ELKARTEA)

# “Gure helburua nork b

Arrasate Yoga Elkarteak 20 urte beteko ditu aurten go irailan. Jose Luis Armendiaren gidaritzapean jaioa, inguru hauetako lehena izan zen. Gainera, yoga eskola izan barik, elkarte bezala eratu zen. Horrek esan nahi du taldeko kide diren pertsonak yoga ikasi baino gehiago egiten dutela. 20 urte hauetan jende ugari pasatu da elkartetik eta egoera ere aldatuz joan da.

— Nola aldatu da yoga-aren egoera inguru hauetan?

— Hasierako garaiarekin konparatuz, asko zabaldu da yogarako zaletasuna. Hasieran, Mondragoen bakarrik zegoen; orain, inguruko herri askotan dago ikasteko aukera: Eskoriatzan, Bergaran...

Hala ere, 10 urtetik hona, Mondragoeko elkarte nahi-ko egonkorra da. Guztira, 70 bat bazkide ditugu.

— Yoga egiteaz gain,

makina bat gauza lantzen duzue...

— Bai, masaje ikastaroak, topaketa edo garapen pertsonala, bioenergetika, sakea eta baita norbere buruari laguntzeko ikastaroak ere. Helburu berbera dute guztiek: norbere burua ezagutzeko, lasai bizi izatea eta gustura egoteko teknikak lantzea. Hori lortzeko bideak dira desberdinak.

— Nola erabakitzen duzue zer landu edo ikasi?

— Denon gustukoak diren gauzak lantzen ditugu. Norbaiti zerbait erakustea edo ikastea interesatzen bazaio, denon artean hitz egin eta ados bagaude, horixe lantzen dugu.

— Zenbat irakasle edo gidari zaudete?

— Lau lagun gaude ikastaroak antolatu eta ematen: Jose Luis Abuin masa-


jista, Antonia Noguera, hasierako yoga ikastaroak ematen, ni neu eta Enkarna Mendez terapeuta. Enkarna Aretxabaletan ari da lanean, baina gurekin elkarlanean. Modu honetan jendeak Aretxabaleta edo Arrasate aukera dezake ikastaroetara joateko.

— Zer egin behar da elkarteko bazkide izateko?

— Lehenik hasierako yoga ikastaro bat egitea izaten da normalena. Modu horretan, yoga ezagutu eta gustuko duen edo ez eraba-

kitzen du jendeak. Ondoren, hurrengo taldera pasatzen da. Aurrera segitzea nahi dutenei, aste pare batez debalde etortzeko aukera ematen diegu. Aldaketa handia izaten da hasierako ikastarotik ondorengora, beraz, aproba egiteko aukera ematen zaie. Bi asteren ondoren, bazkide egin

daiteke aurrera egin nahi duenak. Bazkide egiten direnak, berriz, jeneralean denboraluzera



“Beti izan ditut arnasa hartzeko arazoak eta yogak izugarri lagundu dit horretan”

# ere burua ezagutzea da”

ko izaten dira.

Beste batzuetan, konpromisoa hartu nahi ez dutenek, ikastaroak bere kabuz egin ditzakete, baina garestiagoak dira.

## — Zu zeu, nola sartu zinen?

— Beti gustatu izan zait ariketa fisikoa egitea, mendira joatea, bereziki. Karate ere egin izan dut. Gaztetan, gero eta gehiago yogari buruz hitz egiten entzuten nuen, liburu bat ere erosi nuen. Horrela nengoela, 1978. urtean, Mondragoan hasierako ikastaro bat egin behar zela jakin nuen eta

sartu egin nintzen.

Gertaera bat badut horren inguruan: lagun batekin Urbiera joateko asmoa nuen behin, baina izugarriko katarroarekin nengoela eta, mendira joan beharrean nire lehenengo yoga ikastarora joan nintzen. Kasualitatez, lehenengo egun horretan egin genituen ariketen bidez tiroideetako masajea egin genuen eta handik bi egunera, sekula baino hobeto joan nintzen mendira, guztiz sendatuta eta indarberrituta.

Horrez gain, beti izan ditut arnasa hartzeko arazoak eta yogak izugarri lagundu dit

horretan. Berehala konturatu nintzen hura niretzako zela.

Hasierako ikastaroan geundela, interesgarria zela ikusita eta taldean giro ona geneukanez, elkarte bat sortzea pentsatu genuen. Orduko irakasleak begirale moduan preparatu gintuen, hasierako gure ikastaroak zaindu zituen eta gero bakarrik geratu ginen. Horrela hasi ginen.

## — Irakasle izateko zerbait berezia egin zenuen?

— Kanadara joan nintzen, yoga irakasleentzako hango eskolara. Bi maila daude;

1981ean lehenengo ikastaroa egin nuen. Ondoren, Espainian dauden beste eskola askotan ere izan naiz eta 1983an Indiara joan nintzen, yoga eskolek nola funtzionatzen duten ikastera.

1986an, Kanadara joan nintzen bigarren maila egitera eta 1990ean, berriro ere Indian izan nintzen. Kanadan egin nituen bi ikastaroak birziklatu nituen Indian. Bien bitartean, Euskal Herriko beste eskola batzuetan ere ibili nintzen: Zestoan, Donostian, Bilbon...

1982az geroztik yoga irakasle izatea ogibide bihurtu nuen. ■



Astelehenetik ostegunera zerbitzu hau hitzartu eta zure makilajea aukeratzen lagunduko dizugu.

Eta produktua nola erabili erakutsiko dizugu.

Gorbea, 2 / Aretxabaleta / Tel.: 943 77 09 44

TRÜCCO





## Aspertuta ala?

**E**deozein une da aproposa egunkaria irakurtzeko. Eta Zaldibarko txapelketak ere horretarako aukera ematen du. Ikusle honek hori pentsatu zuen behintzat Timoffol eta Alai Gozokiak taldeen arteko norgehiagokan.

### **BARKATU ERAGOZPENAK**

Joan den astean Arrasate Pressen Zaldibarko dagozkion bi orrietan hanka sartu genuen. Eta zela gainera! *Hurrengo partidak* sailean, lehenengo bi partidak izan ezik beste guztiak gaizki jarri genituen. Eta hankasartze horrek, gainera, izan du ondorioz, talde baten kalterako. Izan ere, *Ume Zikinak* taldea ez zen zegokion partida epaitzera joan. Arrazoia,

Arrasate Pressen ez zuela hori jartzen. Eta Zaldibarko txapelketako arduradunek euren aurkako neurriak hartu dituzte. Kalera ez dituzte bota, baina fidantza galdu dutela adierazi diete. Espero dezagun aurrerantzean gure erruz behintzat horrelakorik ez dela gertatuko. Eta *Ume Zikinak* taldeari, gure barkamen eskaera.

### **GOL ASKOKO PARTIDA.**


Larunbatean, eguerdiko ordu-

bata aldera Zaldibarrera hurbildu zirenek gol ugari ikusteko aukera izan zuten. *Borroak & Roll* eta *Makai* taldeak izan ziren nor baino nor eta guztira hogeitahiru gol ikusteko aukera izan zen; bi minutuko gol bat, hain zuzen ere. Azkenean *Makai* taldea izan zen irabazle 10 eta 13 gailendu baitzen azken momentuan eta ez dirudi talde hori sailkapen nagusiko azken postuan dagoenik. Ez dadila egun bateko

gauza izan!

### **BONBA TALDEAREKIN SANTANDERRERA**

Realak asteburu honetan Santanderren jokatu du Racing taldearen aurka eta Bonba taldeak autobusa antolatu du txuri-urdinak hurbiletik animatzeko. Partida igandean jokatu da eta autobusak goizeko 10etan irtengo du Garibai-ko geltokitik. Ea garaipenarekin bueltatzen zaren!!



## GIDA 2000

Leintz Bailerako Gida Komertziala zure postontzian aurkituko duzu

Autobus ordutegiak, egutegia, aurkibide alfabetikoa...

Ez baduzu jasotzen edo akatsik aurkitzen baduzu, dei egin 943 71 23 91 telefonora edo zuzenean ARKOra etorri

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE



## Sailkapenak

### Emaitzak

#### A taldea

Irati STS 6 - Atxanta el Retorno 4  
 Kobate DKB 5 - AT Lokala 4  
 Goma 2 5 - Xhasss Ugarte 6  
 Kom. Alpargat 1 - Orl. Piratas 5  
 Betrayer 1 - Kanpazar Harrobia 2  
 Ume Zikinak 3 - DA Iriztu 3  
 Saukelu Scream 6 - Etxe Mobil 5  
 Fraguél Gol 9 - AC Surkos 8

#### B taldea

Kamasutra 3 - Serengeti 2  
 SAS T 4 - Timoftol 12  
 Etxerat Tab. 3 - Aurrera Bolie 2  
 Garaje Oscar 10 - Makanudos 4  
 Borrock & Roll 10 - Makai 13  
 IKP 5 - Branka Taberna 6  
 Potroak 4 - Dribling 6  
 Koka J. Basati 5 - Txeyenex 8  
 Alai Gozokiak 1 - AKTA 5  
 Aldibi 4 - Leya 3

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Orlando	13	10	2	1	74	35	<b>22</b>
K. Alpargat	13	10	2	1	64	45	<b>22</b>
You Know	12	10	0	2	69	36	<b>20</b>
Irati STS	13	9	0	4	81	51	<b>18</b>
AT Lokala	13	9	0	4	60	38	<b>18</b>
Sau. Scream	13	8	2	3	54	36	<b>18</b>
Kanpazar Harrobia	13	8	2	3	50	34	<b>18</b>
Ume zikinak	13	7	3	3	74	43	<b>17</b>
Kobate DKB	13	8	0	5	70	45	<b>16</b>
AC Surkos	13	7	1	5	64	44	<b>15</b>
DA Iristu	13	6	3	4	53	63	<b>15</b>
Fraguel Gol	13	7	0	6	61	60	<b>14</b>
Goma 2	13	7	0	6	55	48	<b>14</b>
Betrayer	13	7	0	6	40	41	<b>14</b>
Xhasss Ugar.	12	6	1	5	69	54	<b>13</b>
Girandilla Con.	13	3	0	10	44	115	<b>6</b>
Totem	13	3	0	10	18	34	<b>6</b>
Etxe Mobil	13	2	1	10	41	46	<b>5</b>
Sokoakoak	13	2	1	10	23	46	<b>5</b>
Atxanta el Ret.	13	1	2	10	24	95	<b>4</b>
Bar Nuevo	13	1	0	12	21	87	<b>2</b>
Lontxo Tab.	13	0	0	13	0	13	<b>0</b>

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Dribling	13	12	0	1	63	19	<b>24</b>
Timoftol SMD	13	10	2	1	86	33	<b>22</b>
IKP	13	9	1	3	66	42	<b>19</b>
Kamasutra	13	9	1	3	56	32	<b>19</b>
Branka Taberna	13	8	2	3	83	50	<b>18</b>
KJ Basati	13	7	0	6	67	62	<b>14</b>
Etxerat Tab.	13	6	4	3	59	44	<b>16</b>
Serengeti	13	6	2	5	38	42	<b>14</b>
Txeyenex	13	7	1	5	55	61	<b>15</b>
Aldibi	13	7	1	5	48	50	<b>15</b>
Borrock & Roll	13	5	2	6	52	61	<b>12</b>
Potroak	13	4	3	6	43	47	<b>11</b>
Makanudos	13	5	1	7	41	76	<b>11</b>
Garaje Oscar	13	4	4	5	56	47	<b>12</b>
Leya	13	4	2	7	40	46	<b>10</b>
Aurrera Bolie	13	4	2	7	34	52	<b>10</b>
EPEH	13	4	1	8	43	49	<b>9</b>
AKTA	13	5	1	7	36	35	<b>11</b>
Alai Gozokiak	13	3	2	8	39	60	<b>8</b>
KK Jauriaritzari	13	4	0	9	29	27	<b>8</b>
Sas T	13	1	1	11	34	76	<b>3</b>
Makai	13	1	1	11	53	110	<b>3</b>

**ARRASATE**  **KIROLAK**  
 Kontzezino Kulea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## Hurrengo partidak / 14. jardunaldia

### larunbata, 26

#### Zaldibar

09:50 Orlando Piratas - Giraldilla Con. (Kom. Alpargat)  
 11:00 Komando Alpargat - AT Lokala (Orlando Piratas)  
 12:00 Atxanta el Retono - Betrayer (AT Lokala)  
 13:00 Koka Juniors - Alai Gozokiak (Atxanta el Retorno)  
 14:00 Etxerat Tab. - IKP (Koka Juniors)  
 15:00 Xhasss Ugarte - Kanpazar Har. (IKP)  
 16:00 Irati STS - DA Iriztu (Xhasss Ugarte)  
 17:00 Potroak - Borrock & Roll (Iristu)  
 18:00 Timoftol - Branka Tab. (Borrock & Roll)

#### Epailea

#### Iturripe A

15:50 AKTA - Sas T  
 17:00 Aurrera Bolie - Makanudos (AKTA)

#### Iturripe B

15:50 Etxe Mobil - Ume Zikinak (Saukelu Scream)  
 17:00 AC Surcos - Saukelu Scream (Ume Zikinak)

### igandea, 27

#### Zaldibar

11:50 Serengeti - Aldibi (Garaje Oscar)  
 13:00 Garaje Oscar - Dribling (Serengeti)

## FUTBOLA Bitik bi



Joko gutxiko partida izan zen Mondrako neskek eta Amaiak Bat taldeek jokatu zutena. Goizean goiz izan zelako agian, 09:45etan hasi zuten. Baina lehenengo zatian Mondrak hiru gol aukera izan zituen. Bigarrenean bi gol sartu zituzten mondragoetarrek. Lehenengo Oihanak sartu zuen falta jaurtiketaren ondoren eta bigarrena, Jesikak.

Julik barruko lotailuan min hartu zuen eta 3 astez geldik egon beharko du.

Azkenean 2 eta 0 markagailuan eta Mondrak kopan jokatzeko duen bigarren partida irabazi zuen. Aste honetan Urkiren aurka arituko dira. Partida polita izango da, Urkik ere bitik bi irabazi ditu eta. Gainera, eta etxeko onerako, partida Atxabalpen jokatu da.


## SASKIBALOIA Zorte txarra



Ez zuten hainbeste zortetik izan Kenci Arrasate taldeko neskek. Derbia jokatu zuten Almenen aurka, eta ez batak eta ez besteak ez zuten jokorik erakutsi. Baina bisitariak abilagoak izan ziren eta garaipena eskuratu zuten.

Lehenengo zatian 7 eta 19 erakusten zuen markagailuak. Saskiratze gutxi izan zen seinale. Bigarren zatian ere ez ziren gauzak asko aldatu. Almenek lehenengo minutuetan ez zuen saskiraterik lortu eta Kencik bakarra. Eta horrela egon zen markagailua bukaera aldera arte. Azkenean, berotu egin zen partida eta azken minutuetan herriko jokalaririk bat kale- eta garaipena Almenentzat izan zen, 19 eta 34. Aste honetan ATSS Axular taldearen aurka jokatu dute.

## ESKUBALOIA Liderrarekin ezin



Beasaingo BKL taldearen aurka aritu ziren gazte mailako eskubaloitaldekoak. Beasaindarrak dira lider eta horregatik lehenengo zatian arrasatearrak ondo hasi ziren arren, beasaindarrak nagusi izan ziren bukaeran. Lehenengo zatian gol bat alde izan zuten etxekoek eta 10 eta 8ko markagailuarekin amaitu zuten.

Bigarrenean beasaindarrek aldeko penalti bat sartu zuten eta 12na berdindu zuten 5. minutuan, baina orduan epaileak etxeko aurkako bi penalti adierazi zituen. Markagailuko aldeak gora egin zuen eta etxeko taldeari ihes egin zion partidak eskuetatik. Azken emaitza, Arrasate Almenek 15, Beasainek 22. Aste honetan Urnietan aurka arituko dira.

## PILOTA Onenak

Arrasateko pilotariak bikain ari dira, Debarroko txapelketan zein Udaberri txapelketan. Bietan ere, galdu baino gehiago, irabazi egiten dute Iturripekoe.

Udaberri sarian joan den ostiralean irabazi egin zuten Osinagak eta Lazkanok, 22 eta 7 azpeitiarren aurka. Urribarren eta Jimenezek ere 16 eta 22 irabazi zieten asteasarrei. Arrasatearrak bigarren daude sailkapenean eta Agirre eta Zuazua, berriz, lehenen euren mailan.

Debarroko txapelketan, berriz, Oñatin izan ziren asteartean. Kadeteetan Urribarren eta Zuazuak jokatu zuten.

Gazte mailan Agirrek eta Domingezek berriz, eta senior mailan, Osinagak eta Lazkanok. Bihar Udaberri txapelketan arituko dira.

## Errepidera irteteko prest

Jabier Lazkanok zuzentzen duen Dorletako Ama Txirrindulari eskolak aurtengo gazteen, lehen eta bigarren urteko kadeteen eta lehen eta bigarren urteko infantilen taldeak izango ditu.

Eta talde horiek larunbatean aurkeztu zituzten Eskolak, Mondragon Hotelean egin zuen aurkezpen ekitaldian.

Fagor taldeko gazte mailan bigarren urteko 4 txirrindulari eta lehenengo urteko beste bost ibiliko dira aurtengo: Imanol Solis, Josu Beitia, Iker Bernal, Aitor Odriozola, Danel Lazkano, Aitor Frutos, Eneko Perez, Josu Pagaldai eta Aitor Pavon. Taldeko zuzendariak Aitor Garro eta Jose Frutos izango dira.



Lau talde arituko dira Dorletako Ama Txirrindulari eskolarekin.

Bigarren urteko kadetei dagokienez, JMA talde nagusia, 6 txirrindulari daude taldean, iazko berberak eta aurtengo errepidera bigarren aldiz irteteko dutenak: Amets Elus-

tondo, Raul Blazkez, Endika Martin, Paul Mera, Aitor Elortza eta Iñaki Juldain. Zuzendari lanetan Angel Blazkez arituko da.

JMAk babesten du 1. urte-

ko kadeteen taldea ere. 7 txirrindulari arituko dira: Mikel Arana, Mikel Arregi, Mikel Katania, Josu Galan, Jon Merino, Unai Virumbrales eta Jon Racionero. Zuzendaria Asier Bengoa izango da.

### HIRU GAZTETXO

Azkenik, gaztetxoek: 1. eta 2. urteko infantiletan hiru txirrindulari arituko dira: Eddy Perez, Jon Lete eta Julen Galiano. Arrasate Kirolak izango da taldea eta Gorka Gonzalez eta Jorge Badhiller izango dira zuzendariak.

Txirrindulari hauek ere ez daude ilusio faltan eta aurtengo, gainera, lasterketa asko irabazteko asmotan dira guztiak ere.



# Gimnasia erritmikoa Uarkapen



Bihar goizeko 10:00etan hasiko da txapelketa.

Pilotariek beharrean, gimnasia erritmikoko taldeak emango dio hasiera Uarkape Udal Pilotalekuko denboraldiari. Datoren larunbatean, eta goizeko 10:00etatik aurrera, eskola arteko B mailako Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketarako proba puntuagarriak jokatuko dira Uarkapen.

Arrasateko Dragoi Gimnasia Erritmiko taldeak ere hartuko du parte. Gipuzkoa osoko 120 gimnasta espero

dira eta Dragoi taldetik hamai-ka neska lehiatuko dira Gipuzkoako txapelketarako puntuagarri den proba honetan.

Kadeteetan Miren Bragado, Janire Bolinaga, Edurne Elkoro, Maialen Balenziaga eta Ainhoa Elorzak osatuko dute taldea eta uztai eta sokarekin ikusiko ditugu. Banakako txapelketan uztaiarekin Maria Etxebarria, Miren Bragado, Janire Bolinaga eta Maialen Balenziaga arituko dira.

Infantiletan taldekako lehian Oihana Arriola, Maitane Vivas, Sandra Carrasco, Ane Bilbao, Maialen Gonzalez, Jone Uriarte, Nerea Poyato eta Maite Garcia arituko dira. Hauek uztai eta pilota-rekin ibiliko dira.

Azkenik, eta alebinetan, taldea, Naiara Zabarte, Marta Etxebarria, Olatz Undagoitia, Amaia Albes, Maite Otxandiano eta Maitane Garrido arituko dira pilota eta esku libreekin eta banaka Marta Etxebarria, Amaia Albes, Maite Otxandiano eta Maitane Garrido lehiatuko dira esku libreekin.

Arratsalde partean txapelketa 16:00etan hasiko da eta bukaeran, Erkidegoko Federazioan dauden gimnastei probak egingo dizkiete Euskal Herriko Gimnasia Erritmikoko taldearekin aritzeko.

## Zorte txarra Euskal Herriko karate txapelketan

Ilusioz joan ziren Bilbora Saioa Karate eskolako karatekak. Baina ez zuten zorte handirik izan. Jorge Sanchez, Garbiñe Tera eta Sandra Alvarezentzat senior mailan aritzen ziren lehenengo aldia zen eta Euskal Herriko txapelketan estreinatu ziren, gainera. Gipuzkoako Selekzioarekin joan ziren Bilbora, baina esku hutsik itzuli ziren handik. Erik Martin ere joatekoa zen, baina bezperan min hartu zuen eta ez zuen Bilbora joaterik izan.

Igandean Gipuzkoako infantil eta gazte mailako txapelketa jokatuko da Azkoitian eta 200 bat karateka espero dira. Saioa Karate Eskolakoak ere hantxe izango dira. Gazte mailan, emakumezkoetan, Laida Ramos, Amaia Ormaetxea, Marta Tijero,



Maria Pollatos eta Maika San Makario arituko dira. Mutiletan, berriz, Josu Gonzalez Ruiz de Samaniego, Iban Galan, Oliver Sanchez, Carlos Sanchez, Santiago Cantera, Goizeder Caballero eta Jabier Baena izango dira Arrasateko ordezkariak. Bestalde, infantiletan Tania Diaz eta Estitxu Ugarte izango dira nesketan eta Jon Rodriguez,

Denis Soriano eta Iban Cid mutiletan. Guztiak katetan arituko dira, gazte mailako mutiak izan ezik. Hauek kata eta kumitetan lehiatuko dira.

Txapelketa goizeko 10:00etan hasiko da eta Euskal Herriko txapelketarako sailkatuko dira maila bakoitzeko lehenengo zortziak. Gauzak horrela, aukera behintzet badute Saioako karatekek.



**ARRASATE  
KIROLAK**

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saloan, sari mundiala etxeratzeke.

**Aurreko asteko erantzuna:** Goretex-aren poroa, ur tanta baino 20.000 aldiz txikiagoa da.

**Galdera:** Zein urtetan sortu zen Arrasate Kirolak?

Erantzuna: .....

Izen-abizenak: .....


Helbidea: ..... Tel.: .....

# Txirrindulariak ere prest

Bigarren urtez Arrasate Kirol Proiektuko infantil txirrindulari taldea abian da dagoeneko. Eta ez da talde makala. Hamabost neska-mutikok osatzen dute AKPko txirrindulari taldea.

## ENTRENAMENDUAK

Astean birritan izaten dute entrenatzeko hitzordua. Baina baita asteburuetan ere, ez guztietan, baina bai noizean behin. Astean zehar



saioak astelehen eta ostegunetan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara, San Viator Handiko jolastokian. Baina gutzia ez da entrenamendua izango.

## LASTERKETAK

Eskola Kiroleko txirrindulariek bailarako txirrindulari egutegiko hainbat lasteketan hartuko dute parte. Zorte on txirrindulari gazteei.

## Asteburuko hitzorduak Otsailak 26, larunbata

### AURREKIROLA

Jturripe

- 09:30** SFX U/3.a - Aramaio  
SFX C - SFX D
- 10:30** S. Viator A - La Merced  
Musakola - San Andres
- 11:30** SFX U/4.a - S. Viator B  
Erguin A + B - SFX B
- 12:30** SFX E - SFX A

### MULTIKIROLA

#### NESKAK

Gazteluondo

- 10:15** SFX A - San Viator B
- 11:00** La Merced - SFX U
- 11:45** San Viator A - Erguin

### MUTILAK

Gazteluondo

- 09:30** Erguin - San Viator B  
San Viator A - SFX A
- 10:15** SFX U - SFX C
- 11:00** Aramaio - SFX B
- 11:45** La Merced - S. Viator C

### INFANTILAK SASKIBALOIA

#### MUTILAK Autobusa

San Viator

- 09:30** San Viator - Lagundia B
- 10:30** Arrasate B - Lagundia A

#### NESKAK Autobusa

Jbarra

- 11:00** BHI Kurtzeb. - S. Viator

### FUTBOLA

#### NESKAK Autobusa

Atxabalpe

- 09:15** Aranzadi A - SFX A  
Elgeta - SFX B

#### MUTILAK Autobusa

Musakola

- 10:00** SFX - Aranzadi
- 11:30** La Merced - Almen

## Mendi irteera

Bestalde, asteburu honetan mendi irteera antolatuko dute AKPkoek. Aumategi Gainera. Irteera 09:30ean izango da Gariabiko autobus geltokitik.

**Ibilbidea:** Ozaeta (Elgean), Aumategi, Dgurixa eta Araotz. Itzultzeko autobusa hantxe hartuko dute eta bazkaltzeko etxean.



Futbol La Merced nesken taldea.



Aurrekiroleko SFX D taldea.

NAGORE ARANBURU (AED-KO GAZTE SAILA)

## “Ihauteriak indartu egin nahi ditugu”

AEDko Gazte Taldeak haratuzteetarako azoka eta argazki lehiaketa antolatu ditu. *Kirikiton, Kaka Berdiek eta Traineruak* taldeek osatzen dute AEDko Gazte Taldea. Orain dela pare bat urte sortu ziren hiru taldeok; guk Nagore Aranburu AEDko Gazte saileko arduradunarekin hitz egin dugu horretaz.

### — Noiz izango da azoka?

— Azoka Seber Altube plazan izango da, otsailaren 28an hasi eta martxoaren 4ra arte, arratsaldeko 17:30etik 20:00etara. AEDko Gazte Taldeetako kideek eramandako mozorroak izango dira salgai azokan, eta prezioa ere guk jarriko diegu mozorroei. Beraz, ihauterietarako mozorro berria eskuratzeko aukera polita izango da.

### — Argazki lehiaketa ere antolatu duzue.

— Bai, halaxe da. Nahi duten guztiek hartu ahal izango dute parte argazki lehiaketa horretan.

### — Zeintzuk dira lehiaketan parte hartzeko baldintzak?

— Martxoaren 7an eta Arrasaten ateratakoak izan beharko dute argazkiek. Ondoren launaka aurkeztuko dira, eta martxoaren 14a baino lehen AED elkartearen egoitzara bidali beharko dira, ondorengo helbidera: Pablo Uranga kalea, 4.eko behean. Argazkiak ezizena daraman gutunazal handi batean sartu beharko dira, eta lehiakidearen datuak gutunazal txikiago batean.

### — Argazki lehiaketako irabazleentzat sariak ere izango dira.



— Bai. Martxoaren 17an banatuko zaizkie sariak irabazleei, arratsaldeko 19:30ean AEDko egoitzan egingo den sari banaketan. Lehenengo saria Ikatz argazki dendak emandako argazki kamera izango da, eta bigarrena, berriz, argazkilaritzako materiala Kajoi tabernak emana.

### — Zer dela eta ekimen hauek?

— Arrasaten ihauteriak gainbeheran daudela konturatu ginen, eta hori nolabait indartu nahian sortu zitzaizkigun ideia hauek.

### — Hau izan da AEDko Gazte taldeak antolatu duen lehen ekimena?

— Bai. Geure kabuz antolatu dugun lehenengo ekintza izan da. Orain arte AEDk antolatutako beste ekitaldi batzuetan hartu izan dugu parte, baina beti laguntzaile gisa.

“Sari politak izango dira argazki lehiaketan, Ikatz dendak eta Kajoi tabernak emanda”

## aste gazte

### ■ DIRULAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzak nekazaritza eta arrantza arloan ikerkuntzak egiteko bekak deitu ditu. Epea: martxoak 8.

• “La Caixa”ren eskutik, Frantzia, Bretania Handia, Alemania, EEBB, Kanada edo Japonian postgradu ikasketak egiteko dirulaguntzak. Hainbat epe.

### ■ LANA

• Nafarroako Komunitaterako, koordinazioko operadore laguntzailea, fisioterapeuta eta enpresa zientzietako diplomatua behar dira. Epea: martxoak 1.

• Gipuzkoako Diputaziorako suhiltzaileak behar dira. Epea: EAOean argitaratu zain geratzen da.

• Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkari ezberdinetan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma. Interesik edukiz gero, pasa zaitez bulegotik.

### ■ IKASTAROAK

• Karibeko Dantzak ikastaroa: Julio Lantigua dominikarraren eskutik, otsailaren 28tik aurrera, astelehen eta asteazkenetan, Musakolako Gazte Txokoa. Matrikula 4.000 pta/ 2.500 ikasle eta langabeentzat.

• Euskal Dantza ikastaroa: martxoak 3an hasi eta San Juanak arte. Ostiraletan, 19:00-20:30, Lore Gazteak en lokalean. Matrikula 1.000 pta.

### ■ LEHIAKETAK

• Tuterako Udalaren eskutik, ipuin eta poesia lehiaketa gaztelaraz idatzita. Epea: martxoak 24.

• Gasteizko Udalak, Maizteko Dantza hilabetea, Gasteizko Ikusentzuneke Jaialdia eta Udazkeneko Antzerki Jaialdia iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Hainbat epe.

Argibideak:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

## Emakumeen egun oparoa

Urtero bezala Emakumeen eguna ospatuko da aurten martxoaren 8an, eta Emakume Kontseiluak egitarau oparoa antolatu du.

Otsailaren 29an, hau da, datorren martitzenean, hasiko dira ekitaldiak, "Participación de las mujeres en el espacio público" izenburuko hitzaldiarekin. Arantza Urkaregik, Bizkaiko Emakumeen Asanbladako kideak eskainiko du hitzaldia. Martxoaren 14an izango da hurrengo hitzaldia, eta Maite Barreñak hitz egingo du, Euskal Herriko emakumeen erronkei buruz. Martxoaren 21ean, berriro, Peru, Guatemala eta Txipasen emakumeek bizi duten egoerari buruz arituko dira herrialde horietako hainbat emakume. Hitzaldi guztiak Monterron jauregian izango dira, 19:00etan.



Emakumeen eguna dela eta antolatutako barazki azoka, iaz.

### ZINE KLUBA

Eguenetan, berriz, emakumeek zuzendutako filmak egongo dira ikusgai zine klubean. Martxoan egun guztietan izango dira, Amaia antzokian, 21:30ean hasita. Film hauek ikusi ahal izango dira, hurrenez hurren: "Under the sun", "High art", "Lección de tan-

go", "Lluvia en los zapatos" eta "La manzana".

### IPUIN KONTAKETAK

Horrez gain ipuin kontakizunak ere izango dira. Kontu kontulariek bi bilgunetan jardungo dute. Batetik Arrasateko emakumeak biltzen diren gunetan eta bestetik, berriz,

Udalarekin batera Hezkidetzaren proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetan: Erguin eta Musakolako Herri ikastetxeetan eta Institutuan.

### MARTXOAREN 8AN

Martxoaren 8an, baina, izango da beste ekitaldirik. Herri bazkaria izango da herriko plazan, eta nahi duten guztiak emakume elkarteetan izango dituzte bazkarirako txartelak salgai. Egun berean, 19:30ean, emakumeen aldeko kale-ageraldia egingo da. Gainera, martxoaren 20ra arteko erakusketa ere zabalduko dute Harresi aretoan, Arrasateko hainbat emakume taldek egindako eskulaneekin.

Azkenik, martxoaren 11n emakume baserritar eta artisauen azoka izango da, goizeko 10:00etatik 14:30era, Seber Altube plazan.

## Andaluzia egunaren ospakizunak

Al Andalus kultura elkarteek Andaluzia eguna ospatuko dute otsailaren 25etik 28ra bitartean. Otsailaren 25ean irekiko dute "Ha pasado un duende" argazki erakusketa. Martxoaren 5era arte egongo da ikusgai. Otsailaren 26an, berriz, Andaluziako ereserkia abestuko dute Al-Andaluseko taldeek, 12:00etan. 12:45ean *Sueños de Andalucía* taldeak hainbat dantza eskainiko ditu, eta 14:30ean herri bazkaria egingo dute. 18:00 beste hainbat ekitaldi izango da, eta 21:00etan afaria egingo dute. Gauerdian, berriz, dantzaldia izango da *Trío Nueva Presión* taldearen eskutik. Otsailaren 27an umeentzako pailazoak izango dira Diana izeneko taldearen eskutik, 18:00etatik aurrera. Buka-



Makina bat ekitaldi izango dira asteburuan. Tartean, dantzak.

zkeko, astelehenean ohorezko ardoa dastatuko dute Andalu-

ziako ereserkia kantatuz, 19:00etan.

## Dantzaldia Uarkapen

Uarkape pilotalekuan dantzaldia izango da martxoaren 4an, *Tarantela* orkestrarekin. Hamar lagunek osatzen dute orkestra hori, eta beraiekin batera dantzan egiteko aukera paregabea izango da. SUDC elkarteak antolatu du dantzaldia, eta jendeari moztortuta joatea eskatuko zaio.

SUDC elkarteko kideen arabera, aspalditik nahiko galduta dago ihauteri larunbata Arrasaten. Hori dela eta, egun hori indartu asmoz antolatu dute dantzaldia.

Sarrerak, oraindik zehaztu gabe dauden arren, gehienez ere 1.000 pezetatan izango dira salgai. Ordua ere guztiz finkatu gabe dago, baina 23:00ak aldera izango da.

## irakurle entzule

Iturria: Eya elektragailuak eta Hire liburudenda

## diskoak

### BLONDIE

**Blondie Livid (BMG), 3.195 pezeta**



Otsailean argitaratu du BMG etxeak Estatu Batuetan *Blondie Live* izenburuarekin agertu zen Blondie taldearen zuzeneko diskoa. 1974.ean sortutako pop-punk-disco talde ezagun honen 17 kanta eskaintzen dizkigu disko honek. 70eko hamarkadako eta gaur egungo abestiak, denarik dago: laukotea ezagun egin zuten *Call Me*, *Rapture* edo *Heart of Glass*, eta iaz kaleratutako *No Exit* diskoak biltzen zituen doinuak, *Maria* kanta arrakastatsua, adibidez. Taldea eratu zenean jorratzen zituzten estilo anitzak aurkituko ditugu hemen ere: popa, punka, disko estiloa, rocka...

### MIKEL LABOA

**Gernika-Zuzenean 2 (Elkarlanean), 2.575 pezeta.**



Zuzeneko disko batekin datorkigu oraingoan Mikel Laboa musikari donostiarra. 8 kantu dakartza *Gernika-Zuzenean 2* diskoak. Horietako hiru herrikiok: *Elgeta*, *Txinaurria* eta *Ezpatatantza*. Bes-

teak, berriz, bereak dira: *Gure hitzak*, *Kiromantzidxa*, *Gernika*, *Txoria txori* eta *Baga-biga-higa*. Euskal Herriko Gazte Orkestrak, Donostiako Orfeoia, Jose Antonio Sainz Alfarok, Iñaki Salvadorek, Josetxo Silguero, Jexux Artzek, Pello de la Cruzek, Luis Caminok, Izaskun Ellakuriagak, etab.ek hartu dute parte disko honetan. Grabazio gehienak zuzenean eginak dira 1999.ko abuztuan, Donostiako Victoria Eugenia antzokian.


## liburuak

### KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL

#### Nobela

Joxean Sagastizabal (Alberdania)

109 or., 1.200 pezeta




**Salduea** urtarrilaren 25etik otsailaren 25era Euskaraz (fikzioa)

du. Prosa irakurteraz eta umoretsuan, euskara ikasteko asmoz baserri batean denboralditxo bat ematen duen gazte baten gorabeherak kontatzen zaizkigu.

Lehen aldiz 1994.ean argia ikusi zuenetik azken urteotako euskal literaturako arrakasta handienetakoa da Sagastizabal eibartarraren nobela. Iazko apirilean 21. argitaraldia izan zen. Salmენტakoa lehen postuetan jarraitzen

## asteko filma



## Las cenizas de Angela

(Angela's Ashes). Irlanda-EEBB, 1999. Drama.

**Zuzendaria:** Alan Parker

**Haria:** Alan Parker eta Laura Jones, Frank McCourten nobelatik moldatuta

**Aktoreak:** Emily Watson, Robert Carlyle, Michael Legge, Claran Owens, Joe Breen

**Iraupena:** 2 ordu

**Espanian estreinaldia:** urtarrilaren 21ean

Frank McCourt idazle irlandarraren autobiografiatik moldatutako istorioa. Negar malkoak eragiteraino hunkitzen du. Zigortutako familia irlandar baten istorioa kontatzen du. Frank txikiak, protagonista eta kontatzaileak, bere haurtzaroko oztopoekin izandako borroka kontatzen du.

### HARIA

Aita edale langabe etxekalteak, Angelak, (itxaropena galdu duen amak) eta Frankek eta bere hiru anai-arrebek osatzen duten familiak, garai hartako Irlandako arazoei aurre egin beharko diete: gosea, hotza, gaixotasunak, obsesio nazionalista eta erlijiosoak... McCourt familiak bizitza zorigaitza dauka, itxuraz konponbiderik gabe. Eta Alan Parker zuzendaria gogoz saiatu da McCourten autobiografia zinera moldatzen. Izan ere, Parker hunkitu egin zuen nobelak. Idazleak Parkerren bertsoa goraiatu zuen.

### KRITIKA

Denetarik iritziak izan ziren: Iazko filmerik onena batzuentzat eta nobelaren emozioa ez duela ondo jaso beste batzuentzat.

## asteburuan zer

### ELKARTASUN KONTZERTUA GAZTETXEAN

Aratz Gomezzen eta Irunen atxilotutako gazteen aldeko kontzertua antolatu du Amnistiaren Aldeko Batzordeak, "Amnistia eta Askatasuna" leloarekin. Arrasateko Gaztetxean izango da kontzertua, larunbat honetan, gaueko 21:00etan. 600 pezetaren truke, ondoko taldeak entzuteko aukera izango duzue: *Des-kontrol*, *Kañeria 13*, *Iskanbila*, *Brutal Melody* eta




*Ekon*, guztiak Arrasatekoak. Antolatzaileek adierazi dutenez, jasotzen den dirua Gestorarentzat eta atxilotutakoen familien gastuak ordaintzeko izango da.

# ATB

## Programazioa

### OSTIRALA, 25

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
 Mari Karmen Telleria  
 Oñatiko Garoa Jatetxeko  
 sukaldariak prestaturiko  
 platera.  
**13:45** Musiklasik  
 (errepika).



Iñaki Olaizola.

- 20:00/20:30/21:00** Berriak.  
**21:30** Astebete. Maider Osaren  
 eskutik asteari erpepa-  
 soa egingo diogu.



Maider Osa.

- 22:00** Gatza eta Berakatzatza  
 (errepika).  
**22:10** ATBk 10 urte. 10 urte 10  
 ordutan (errepika).

### LARUNBATA, 26

- 13:30** Asteko programen  
 errepika: Jolasplast,  
 Gatza eta Berakatzatza,  
 Hamaika Magazin, Gatza  
 eta Berakatzatza, Musikla-  
 sik eta Astebete.

### IGANDEA, 27

- 13:30** Asteko programen  
 errepika: Jolasplast,  
 Gatza eta Berakatzatza,  
 Hamaika Magazin, Gatza  
 eta Berakatzatza, Musikla-  
 sik eta Astebete.

### ASTELEHENA, 28

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
**13:45** Astebete (errepika).  
**20:00/20:30/21:00** Berriak.  
**21:30** Mondrasport. Itxaro  
 Zubillaga eta Xabier  
 Urzelaiaren eskutik,  
 asteburuko kirol  
 emaitzak jakingo ditugu.  
 Arrasate Kirolak  
 lehiaketako sari  
 banaketa egingo da.  
**22:00** Gatza eta Berakatzatza  
 (errepika).

### ASTEARTEA, 29

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
 Mari Karmen Telleria  
 Oñatiko Garoa Jatetxeko  
 sukaldariak prestaturiko  
 platera.  
**13:45** Mondrasport (errepika).  
**19:20** Jolasplast. Mikel  
 Lizarralde aurkeztutako  
 haurren lehiaketa.



Jolasplasteko aurkezleak.

**20:00/20:30/21:00** Berriak.

- 21:30** Hamaika Magazin.  
 Arantzazu Lagunillak  
 aurkeztuta, osasunaz,  
 bidaiez, arteaz eta beste  
 hainbat konturi buruz  
 jakiteko aukera izango  
 da. Ihauterietako  
 mozorrei buruzko  
 erreportaje berezia ere  
 prestatu dute. Horretaz  
 gain, "Artea eta  
 Enmarkazioak" zozketa  
 egingo da.



Arantzazu Lagunilla.

- 22:00** Gatza eta Berakatzatza  
 (errepika).

### ASTEAZKENA, 1

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
**13:45** Hamaika Magazin.  
**20:00/20:30/21:00** Berriak.  
**21:30** Aurrez Aurre. Edurne  
 Mujikaren eskutik  
 arrasatear interesgarrien  
 baten bizimodua  
 ezagutzeko aukera izango  
 dugu.  
**22:00** Gatza eta Berakatzatza  
 (errepika).

### OSTEGUNA, 2

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
**13:45** Aurrez Aurre (errepika).  
**20:00/20:30/21:00** Berriak.  
**21:30** Ekilan. Alberto Gorritibe-  
 reak aurkeztutako  
 programa.  
**22:00** Gatza eta Berakatzatza  
 (errepika).  
**22:10** Soinuz Blai, Miren  
 Gonzalezzen eskutik.



Miren Gonzalez.

### OSTIRALA, 3

- 13:30** Albiste aurrerapena.  
**13:35** Gatza eta Berakatzatza.  
**13:45** Ekilan (errepika).  
**20:00/20:30/21:00** Berriak.  
**21:30** Astebete. Eneko  
 Azkarate, Berrigara  
 astekarikako zuzendariak  
 aurkeztua.  
**22:00** Gatza eta Berakatzatza  
 (errepika).  
**22:10** Soinuz Blai, Miren  
 Gonzalezzen eskutik.

### S. CARRASCAL S.L.

#### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

#### Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
 Tel/Faxa: 943 79 01 82

# Gatza eta Berakatza

Urriaren 4an hasi zen sukaldaritza saio honek izan duen arrakasta ikusita, zuen erre-zeta bilduma osatzeko beste aukera bat eskainiko dizue ATBk. Izan ere, datorren astelehenetik aurrera eta ekainera bitartean, sarreretaoetatik hasi eta postre-taraino berriz eskainiko ditu orain arte egiten ikusi ditugun platerak.

Astelehenean sarrereta-koekin hasi dira eta ostira-lera bitartean egunero sarre-rako plater bat eskainiko digu Gatza eta Berakatza saioak. Guztira bederatzik sukaldari izan ditugu gure-

an Auzo Lagun eta Eroski-ren laguntzari esker egin diren saioetan.

Igor Ezpeleta, Bixente Pagoaga, Eulali Mazkiaran, Kontxi Juantorena, Alberto Elortza, Edurne Izarzelai, Aitor Aizpurua, Jose Ignacio Lasa eta Mari Karmen Telleria izan dira sukaldariak, guztiak Debagoieneko jate-txe ezagunetakoak.

Astelehenetik aurrera, beraz, sarrerakoak, okelak, arrainak eta postreak egite-ko errezetak eskainiko diz-kigute sukaldari hauek guz-tiek eguerdi eta iluntzetan. On egin!

## Datorren astean

### PLATERAK: Sarrerakoak

NOIZ	PLATERA
Astelehena 28	Perretxiko suflea.
Astearte 29	Atun mendrezka piparrekin.
Asteazkena 1	Marisko txikitua.
Osteguna 2	Esparrago berde eta ganben nahaskia.
Ostirala 3	Atun entsalada epela, tomate eta pistatxoarekin.

## Arrasate Kirolak lehiaketa



Datorren astelehenean, hilak 28, Arrasate Kirolak lehiaketa zozketa egingo da. Mondrasport saioan Itxaro Zubillagak eta Xabier Urzelaik,

Arrasate Kirolak etxeak eskainitako sari paregabea zotz egingo dute.

Adi, beraz, parte hartu duzuen guztiok!

# Ingurugiroaz mintzo

## Ekilan ostegunean, 21:30

Alberto Gorritiberea, Herri Irratiko esatariak zuzentzen duen enpresen saio honetan, datorren ostegunean Esther Larrañaga, Ingurugiro sailburuordea gonbidatuko du ATBko platora. Berarekin ISO 14.001 kalitate ziurtagiriaz, Deba ibaiatz eta harrobien berreskurapenaz mintzatuko da. "Zer egiten den" tarterako, berriz, Arrasate Kristaldegia aukeratu du Albertok. Jakingo duzue-

nez, Arrasate Kristaldegian beiraren fusioarekin egiten dituzte lapiko, lanpara eta bestelakoak. Ekimen horretaz arituko dira bertako arduradunak. Baina izango da bestelako gonbidaturik ere; izan ere, eta oraindik erabat zehazturik ez dagoen arren, "Zer egiten du" tartean ere ekimena duen beste lagun bat ere gonbidatuko du Albertok.



## Aurpegi berria



Hauxe duzue ATBk egin duen azken fitxaketa. Eneko Azkarate da, Bergarako Berrigara astekariko zuzendaria. Hemen-

dik aurrera bera izango da Astebete saioko aurkezlea. Ongi etorri bada, Eneko, eta zorte on!

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Torreviejan apartamentua salgai. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 79 32 54 eta 480 61 81 07.

### 3. Errentan emateko

• Logela alokagai Erguin auzoan. Tel.: 943 79 35 93. 18:00etatik aurrera.

• Torreviejan guztiz hornitutako bungalowa alokagai. Hondartzatik gertu. Uztailean 2. hamabostaldi eta abuztuko lehenengoa. Tel.: 943 78 14 72.

• Logela bat alokatzen da, etxebizitza konpartitu batean. Tel.: 943 79 23 96.

• San Andres auzoan emakume langile edo ikasle batentzat gela alokatzen da. Tel.: 943 79 15 96. Bittor.

• Etxebizitza alokagai Benidormen, Plaza de Levanteren aurrealdean. Tel.: 946 80 09 53. Marisa.

### 4. Errentan hartzeko

• Baqueira aldean ostatu hartu nahiko nuke. Tel.: 943 79 57 31.

• Etxebizitza alokatu nahiko genuke, 3-4 lagunentzat. Tel.: 943 77 03 36.

• Ikasle talde batek etxebizitza alokatu nahiko genuke Arrasaten, 3 edo 4 pertsonentzat. Tel.: 649 88 79 22. Eneritz.

### 5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar da langileen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Langileak bada hobe. Tel.: 943 77 03 36. Ainhoa.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Zigarrolan. Tel.: 617 72 47 83.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai, Jose Luis Iñarra pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

### 9. Errentan emateko

• Garajea alokatzen da Uarkape kalean. Tel.: 943 79 84 35.

• Bi garaje itxi alokatzen dira Arima zuri plazan, bietako bat bikoitza. Tel.: 656 75 91 98.

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

• Taberna salgai Arrasaten, guztiz jarria. Tel.: 943 77 07 80 / 608 73 86 73.

• Taberna salgai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

### 14. Errentan emateko

• Taberna alokagai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu,

100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko lokaia salgai. Tel.: 943 79 18 70.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Neska umeak zaintzeko prest, arratsaldetan. Tel.: 943 71 53 74.

• Era guztietako lanak eta apunteak ordenadorez pasatzen ditut. Aukera zabalak: letra eta tamaina gustukoena, marrazkiak, grafikoa, etab. Tel.: 646 09 53 38.

• Neska asteburuetan tabernari lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 42 54.

• Esperientziadun neska prest etxeko garbiketarako orduka egiteko, umeak zaintzeko edo beste lanen bat egiteko. Tel.: 943 79 69 66. Ainhoa.

### 18. Eskaerak

• Emakume bat behar da ume bat zaintzeko Oñatin. Tel.: 943 78 05 96. Gaeuz deitu.

• Pertsona bat behar da bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 28 50.

• Jatetxe baterako sukaldaria behar da. Tel.: 943 79 92 58.

• Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakumea behar da. Tel.: 943 77 06 56.

• Oxford-en (Ingalaterra) senar-emazte espainolek neska behar dute bi seme-alaba zaintzeko. Soldata, lana luzatzeko aukera eta ingelesa ikasteko denbora eskaintzen da. Tel.: 945 25 31 12.

• Arrasaten kokatutako Informatika enpresak, informatikan diplomatua edo lizentziatua behar du, C ezagupenak. Harremanetarako: 943 71 20 99.

• Kale-baserri batean pertsona bat behar da ortuan lan egiteko. Lur zati bat utziko zaio berak landu dezan, laguntasunaren trukean. Tel.: 943 79 10 95.

• Neska euskalduna behar da arratsaldean denda batean lan egiteko. Bidali datuak 258 posta kutxatilara.

• Zerbitzari euskalduna eta garbitasuna eramango duen pertsona behar dira jatetxe batean asteburuetan lan egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Esperientzia eta EGA titulua duen lizentziatuak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

• Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

• Ingelesezko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

### 21. Eskaerak

• Logseko 2. mailako fisikako eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 55 60. Arratsaldean.

• "Gestio Kontabilitateko" eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 96 15. Gaeuz deitu.

• Enpresa zientzietako 2. ikasturteko matematikako eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 92 73.

• DBHko 3. kurtsoko eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 66 05, goizez.



• Gorren hizkuntza edo LS dakien norbait behar dut praktikatzeko. Tel.: 607 31 02 66. Sonia.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Motorra salgai. Rieju RR, hori kolorekoa. Ondo prestatua. Tel.: 606 13 50 32. Gorka.

• Renault 5 salgai. SS-T matrikula, egoera onean eta IATA pasatu berria. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 11 99.

• Opel Astra 14i-GT. IAT Abenduan pasata. 10 CD sartzeko musika ekiparekin. Prezio onean. Tel.: 943 79 75 02 / 606 00 30 16.

• Opel Kadetta salgai GSI 16 balbula. Ondo zaindua. Tel.: 943 79 75 11.

• Citroen BX 16 salgai. SS-AB matrikula, IAT pasatu berria. Egoera onean. Tel.: 943 79 81 19.

• Renault Master furgoneta salgai. SS-0290-BF matrikula. 11.000 km. ditu. Mendirako prestatuta. Tel.: 943 79 95 89.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Bigarren eskuko Pignini 100 akordeoia salgai. 120ko bajua. Tel.: 945 40 33 63.

• Fondoko eskiak salgai, ekipo guztia, neurria 42, bi aldiz besterik ez ditut erabili. Tel.: 943 79 88 83. Mikel.

• Teknografo (marrazki taula) pare bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 11 80.

• Bigarren eskuko Pignini markako akordeoia salgai. Tel.: 943 79 13 88. Amaia.

• Playstation berria, erabili gabea, salgai. Dual Shock. Bijoko. Tel.: 943 79 65 80. 17:30-20:30.

• Natural hazitako bildots eta txahal labeldunak izozkailuan sartzeko salgai. Tel.: 689 54 18 61.

• Whipit piragua salgai, arrauna, bainuestalkia, eta bi puxika. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

• Marrazteko mahaia, "Lester" marka alemaniarra, salgai. Berri berria da. 15.000 pta. Tel.: 943 79 25 10.

• Cocker txakurrak salgai. Tel.: 696 05 73 46.

• Soinu txikia salgai. Berria, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

• Solarium APRO markakoa salgai, egoera onean. Tel.: 943 76 51 76. Leire.

• Emakumezkoen mendiko bizikleta, berri-berria salgai. 3 plater eta 6 pinoi. BH markakoa. Tel.: 943 79 96 37.

• Bi mostradore eta apala metalikoak salgai. Tel.: 666 95 79 83.

### 27. Erosi

• Txanpon zaharrak erosiko nituzke. Tel.: 639 82 27 90.

• LP diskak erosten ditut. Tel.: 943 79 76 90.

• Mundu guztiko txanponak erosi, saldu edo aldatuko nituzke. Tel.: 943 79 54 55. Mikel. 20:00etatik aurrera.

• Diskoak, singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77. Jose Luis.

### 31. Galdu

• Plumifero urdin bat galdu dut azoka inguruan. Tel. 943 77 04 21.

• San Andres inguruan montura marroia eta aumento handiko betaurrekoak galdu nituen, orain dela 15 bat egun. Tel.: 943 79 45 16.

• Zenbait bitxi zintzilik duen urrezko kataia galdu nuen urtarrileko azken egunetan. Aurkitzen duenak ordain saria jasoko du. Tel.: 639 65 34 85.

• Otsailaren 15ean, asteartez, atarki tolesgarri berdea galdu zitzaidan, Vogue markakoa. Tel.: 943 79 84 09.

• Otolara kaleko farola baten ondoan tenazak galdu zitzaizkidan, kirtenak gorri kolorekoak dira. Tel.: 943 46 53 56.

### 32. Aurkitu

• Urrezko katea dominarekin, Inaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

• Arrasate Pasealekuko "Bolinxo" okindegiaren inguruan, montura metalikoa eta koloreko kristalak dituzten betaurrekoak aurkitu nituen orain dela aste batzuk. Tel.: 943 79 47 56.

# Loramendi kirolak

Sudaderak **3.500**

Kamisetak

**2.500**

Umeen

**1.500**

arropak

**2.500**

Txamarrak

**5.000**

Prakak

**3.500**

**AZKEN EGUNAK !!!**



**U**daletxe aurreko plazan elkartuta, 1956. edo 57. urteen inguruan lagun talde honek oroitzapenerako argazkia atera zuen. Santo Tomas eguna zela uste du gure berriemaileak. Jaietan bakarrik erretzen zuten eta zigarroekin ageri dira argazkian.

Baina ikusten duzuenek, bazuten beste ohitura bitxi bat ere: lagun talde guztiak gabardinaz jantzita irtetea, "Colomboren parera".

Garai hartako Santo Tomasetan, lehenengo Biteri Eskoletan, trikitixa dantza egiten zuten. Gauean, berriz, Herriko Plazara joaten ziren (orduko Plaza de Españara), bandak jotzen baitzuen. Saioa bukatzean, oraindik dantzarako gogoia zutenak Azoka Plazan antolatzen zen dantzaldira joaten ziren. "Verduring Dance" izenarekin bataiatu zuten dantzaleku hura mondragoetarrek.

Ondorengoak dira argazkiko lagunak: tente daudenak, ezkerretik hasita Jose Bruña, Pedro Gordejuela, Jose Cruz Gonzalez eta Gregorio Gonzalez. Makurtuta, ezkerretik eskuinera daudenak: Antonio Duque, Jose Riviere eta Dalmacio de la Torre.

Duela gutxi Zigorrolako taberna batean elkartu ziren; aspaldiko ohiturak gogora ekarri eta primeran ibili omen ziren.

*Argazkia: Gregorio Gonzalez  
Berriemailea: Jose Riviere.*



Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

# ZAFIRA



Zure begien  
lilurarako



**OPEL** 

# Etxeko konponketak

## Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2.  
(Bixiena Baseria) • ARRASATE  
Tel.: 943 77 02 43  
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA  
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltzaritza



*Izcue Irurzun*

Igeltzaritza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak



**ARGI PLASTIK**

PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.  
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Ate eta pertsianak

**JUBAR®**  
ATEAK, S.L.

Garajeetako ate eta pertsiana automatikoak

Kataide poligonoa, 1

Tel.: 943 79 10 20 • Faxa.: 943 79 08 17

## Igeltsoak - Apaintzea

**Pako eskaiolak S.L.**

Markulete, 14

Tel.: 943 77 08 21

## Margoak

**APAIN**

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## Elektrizitatea

**ARANZABAL**



**KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

**Jovi**

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerrias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87



**RRASATE**

**Elektrizitatea**

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

**AURI**

Loramendi 7, 2 behea

Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak  
Gasa • Berogailuak

## Pertsianak



**PERSIANAS CARPER**

Mota guztietako pertsianen  
salmenta, muntaketa  
eta konponketa

Eskuzko pertsiana eta elektrikoak

Anboto2. 1 esk. Tel.: 943 79 67 43

Mug.: 630 27 46 09

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Tapizeriak

**Konrado**

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

**Eskatu aurrekontua.**

Nafarroa etorbidea, 23 MI11

Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

# Diseinua



## Kalitatea

## Aukera zabala

Zure ilusioak errealitate bihurtzen direnean

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

**FAGOR** 